
GAZTEMATIKA

2019-2020ko

PLANA




Gaztematika
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
www.gipuzkoangazte.eus
2019-2020ko planaren txostena
2019ko urria

AURKIBIDEA

A. Aurkezpena

B. Garatuko diren ekintzak



A. Aurkezpena

Legegintzaldi berri baten hastapenetan gaude, eta horrek lau urteko ziklo berri baten hasiera esan nahi du sarearentzat. 2019-2023 aldian Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteek dituzten beharrei eta beren eskaerei erantzuten ahaleginduko gara, orain arte egindako ibilbidea, lortutako emaitzak eta jarraipena behar duten elementuak ondo gogoan hartuta.

Plangintza berri hau garatzeko hainbat material hartu ditugu oinarrizko erreferentzia gisa: Gaztematikaren plangintzak, Gaztematikaren 2015-2019 aldiaren ebaluazioko emaitzak, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, Europar Batasunaren Gazteria Helburuak – Europako Gazteriaren 2019-2027 Estrategia Berriak, Familia eta Haurren Euskadiko Ituna, EAEko Familiei laguntzeko erakunde arteko Plana 2018-2022, IV. Gazte Plana, barne-hausnarketako jardunaldi baterako SIISek landutako *Haur, nerabe eta gazteen beharrak* dokumentua, eta HNGen Sustapen Zerbitzuak berak Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen egoerari buruz egindako oinarrizko diagnostikoak.

Erreferentzia horietatik zenbait elementu atera ditugu, gure lurraldeko haur, nerabe eta gazteen bizitza nolabait baldintzatzen ari diren alderdiak direla uste dugulako. Une honetan eragin garbia dute, baina, gainera, epe ertain eta luzera ere ondorioak ekartzen dizkiete haien bizi-baldintzei, bizitzarako itxaropenei eta garatu eta gizarteratzeko aukerei. Faktore horiei ideia indartsu batzuk gehitu dizkiegu, egoera honi aurre egiteko balia ditzakegun “aukerak”. Hauek dira:

- Haur, nerabe eta gazteen eskubideak gure lanaren oinarri gisa
- Haurren eta gazteen pobrezia arriskuak eragin dezakeen desparekotasuna.
- Familien eta pertsonen goranzko gizarte-mugikortasuna garatzeko zailtasun handiagoak.
- Gizartean arrisku berriak agertu izana, zenbaitetan kontsumo eta aisialdiko eredu berriekin lotuta daudenak.
- Aukera-berdintasuna sortzeko beharra, aniztasunetik eta kohesio sozialetik.
- Generoen arteko desparekotasunari lotutako egoeren iraunkortasuna.
- Euskararen erabilera zaintzeko beharra, bereziki eremu informaletan.
- Aldaketa klimatikoaz arduratzea, kontsumo arduragabea gelditzea eta jasangarritasun handiago baten alde lan egitea.
- Gazteen emantzipazio-tasa txikia eta zein adinekin egiten den.
- Gazteen lan-egoeraren prekarietatea.
- Gazteen eta adinekoen artean gertatzen ari diren desparekotasun-egoerei irtenbidea emateko, belaunaldi arteko lankidetzaren beharra.
- Haur, nerabe eta gazteen arloan egiten den gastua inbertsioa dela aintzat hartuta, paradigma-aldaketa bat bultzatzea.

- "Esku-hartze hezigarriak", zuzenean haurrekin nahiz familiaren bitartez egiten direnak, adin txikiagoetara aurreratu izana.
- Herritartasunaren kontzeptua eta praktika haurtzarotik txertatzea, erakundeen partaidetzazko gobernantza berriaren elementu gisa.
- Haur, nerabe eta gazteen gizarte eta hezkuntza-arloko prozesuetan komunitateari merezi duen garrantzia ematea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea haur, nerabe eta gazteen sustapena eta ahalduntzea lantzeko tresna nagusitzat hartzea, aisiarako duten eskubidea aldarrikatuz eta, hezkuntza ez-formalaren bitartez, haien eskura gizarte- eta hezkuntza-arloko baliabide-eskaintza handiago bat jarriz. Hori guztia, erakundeen erantzukizun publikoa dela aintzat hartuta.

Hemen adierazitako behar eta eskaera horiei aurre egiteko, plan hau prestatu dugu, aurrekoen egitura aldatuta. Gure erreferentzia pasa diren 10 ikasturteetan egindako ibilbidea izan da, baina beharrezkoa iruditu zaigu plangintzaren eskeman aldaketa batzuk egitea, bi helbururekin. Batetik, planaren ardatzean hartzaileak jarri dira, haur, nerabe eta gazteentzat aurreikusitako ekintzak deskribatuz, eta bigarren mailan jarri dira beste eragile batzuei dagozkienak. Bestetik, plana erraz komunikatu eta ulertzea nahi genuen.

Horretarako, planak lau lan-eremu ditu, eta horien bitartez ikusi ahal izango da zein ekintza diren haurrentzat, zein nerabeentzat eta zeintzuk gazteentzat. Laugarren lan-eremua barne-lanari dagokio gehiago, sarearen funtzionamenduari, eta horregatik "Kudeaketa" izendatu dugu.

Plana antolatzeko beste irizpide bat ildo estrategikoei dagokie. Lehen hiruek adieraziko digute haur, nerabe eta gazteekin zeharka landuko ditugun esparru handiak zeintzuk diren:

- Ongizatea sustatu
- Aukera-berdintasuna bultzatu
- Herritartasun aktibo erraztu, haien parte-hartzea bultzatuz

Laugarren ildo estrategikoa Gaztematika sarea kudeatzeko moduari dagokio:

- Gaztematikaren kudeaketarako partaidetzako gobernantza bultzatu

Ildo estrategiko eta lan-eremu bakoitza garatzeko, legegintzaldi honetan lortu behar genituzkeen helburu estrategikoak ezarri dira. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Zerbitzuko teknikariek bileren bidez egindako lan-prozesu baten ondoren, hogeita zazpi helburu proposatzen ditugu:

ILDO-ESTRATEGIKOAK	LAN-EREMUAK HAURRAK	NERABEAK	GAZTEAK
Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatu	H1- Haurren ongizatea sustatu, emozioen kudeaketa landu, jazarpen-egoerak ekiditeko baliabideak eskaini eta prebentzioa lantzea	H9- Nerabeen ongizate emozionala sustatzea, ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatzea eta arrisku egoerei aurrea hartzea	H18- Gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzea
	H2- Gurasotasun positiboa landu eta sustatzea	H10- Gurasotasun positiboa lantzen jarraitzea	
Haur, nerabe eta gazteen aukera-berdintasuna bultzatu	H3- Haurren artean genero-estereotipoak ekiditea eta pairatzen dituzten sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik ikusarazi eta esku hartzeko markoa definitzea	H11- Nerabeekin berdintasuna lantzea, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea eta sexu-hezkuntza bultzatzea.	H19- Gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea
	H4- Jatorri eta testuinguru desberdinetako haurren aukera-berdintasuna sustatzea, eta kulturartekotasuna lantzea	H12- Nerabeen errealitate anitza ikusgai egitea kulturartekotasuna bultzatuz.	H20- Gazteen lan-aukerak zabaltzea
Haur, nerabe eta gazteen herritartasun aktiboa erraztu, haien parte-hartzea bultzatuz	H5- Haurren artean euskararen erabilera sustatzea, haurtxokoetan herriko beste eragileekiko elkarlana bultzatuz	H13- Gaztelekuetan zein beste gune informaletan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzea, herriko eragileen laguntzarekin.	H21- Gazteentzako sustapeneko eskaintza hobetzea
	H6- Haurren garapen pertsonala eta autonomia sustatzea jolasaren eta aisialdiko programen bidez	H14- Nerabeen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta esperimentazioa sustatzeko aisia-programak bultzatu eta eskaintzea	H22-Gazteeen partaidetza indartzeko estrategiak sustatzea
	H7- Haurrak herritar aktibo izateko hezkuntza bultzatzea, beren nortasun digitala ahalik eta era positiboenean eratzeko lan egin/laguntzea eta beren partaidetza sustatzea.	H15-Nerabeei beren nortasun digitala ahalik eta era onuragarrienean bizitzen laguntzea	
	H8- Ingurumenarekiko jarrera arduratsuak haurrekin lantzen hasi	H16- Nerabeen partaidetza bermatu toki mailako bideak zehaztuz eta arlo komunitarioa garatuz.	
		H17- Ingurumenarekiko jarrera jasangarriak eta praktika onak sustatzeko, nerabeak sentsibilizatzea	

	LAN-EREMUAK KUDEAKETA
Gaztematikaren kudeaketarako partaidetzazko gobernantza bultzatu	H23-Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea
	H24-Gaztematikako eragileen elkarlana sustatzea toki zein lurralde mailan
	H25-Aldundian eta udaletan zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen laguntzea
	H26-Komunikazio eraginkorra garatu eta indartzea, batetik, gizartera eta haur, nerabe eta gazteengana iristeko, eta bestetik, eragileei Gaztematika ezagutzera emateko eta koordinatzeko
	H27-Gaztematikako profesionalen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzea, berrikuntzarako eremu eta baldintzak sustatuz
	H28- Planifikazioa hobetzea, berariazko diagnostikoak eta ebaluazioak bultzatuz

Ildo estrategikoz, lan-eremuz eta helburu estrategikoz osatutako plan-egitura hau erabiliko dugu legegintzaldiak iraungo dituen lau urteetan; bera izango da planaren bizkar-hezurra. Urrian hasi eta uztailean amaitu, ikasturte bateko iraupena izango duten planen bitartez garatuko da.

2019-2020 PLANA

Hemen aurkeztuko dugun plana hamaikagarrena da Gaztematika Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema/Sare gisa martxan jarri zenetik.

2019-2020 aldirako plana garatzeko, gorago aurkeztutako egituran oinarritu gara, eta ekintza batzuk proposatu ditugu, onartuak izan ondoren, behin betiko plana osatzeko.

Plan honetan ez dira helburu estrategiko guztiak landuko; batzuk datozen ikasturteetako planetan burutuko dira.

2015-2019 aldiaren ebaluazioa lantzen hasi ginenetik egindako lan-ibilbidearen ondoren, 32 ekintzaren bitartez legegintzaldiko 27 helburu estrategikoetatik 24 lantzea aurreikusten duen plan bat aurkeztuko dugu. Proposatutako ekintza guztietatik 7 lan-eremu batean baino gehiagotan garatuko dira.

LAN-EREMUAK / ILDO ESTRATEGIKOAK	HAURRAK	NERABEAK	GAZTEAK
Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatu	H1- Haurren ongizatea sustatu, emozioen kudeaketa landu, jazarpen-egoerak ekiditeko baliabideak eskaini eta prebentzioa lantzea	H9- Nerabeen ongizate emozionala sustatzea, ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatzea eta arrisku egoerei aurrea hartzea	H18- Gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzea
	1.- Haur eta nerabeen ongizate emozionala lantzeko bideak hausnartu.		16.- Hainbat udalek afektibitatea eta sexualitatea lantzeko gazteei eskaintzen dietena aztertu
	H2- Gurasotasun positiboa landu eta sustatzea	H10- Gurasotasun positiboa lantzen jarraitzea	
	2.- Gurasotasun positiboa lantzeko aukerak aztertu		
	3.- Arlo digitalean gurasotasun positiboa lantzeko aukerak aztertu		
Haur, nerabe eta gazteen aukera-berdintasuna bultzatu	H3- Haurren artean genero-estereotipoak ekiditea eta pairatzen dituzten sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik ikusarazi eta esku hartzeko markoa definitzea	H11- Nerabeekin berdintasuna lantzea, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea eta sexu-hezkuntza bultzatzea.	H19- Gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea
	4.- Haurrenganako sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik landu		17.- Gipuzkoan gazteentzako etxebizitzen inguruan abian dauden egitasmoak jaso
		9.- Inspira_STEAM egitasmoa gaztelekuetan garatua	
		10.- Nerabeen hezkuntza afektibo-sexualari buruz hausnartu	
Haur, nerabe eta gazteen herritartasun aktiboa erraztu, haien parte-hartzea bultzatuz		H13- Gaztelekuetan zein beste gune informaletan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzea, herriko eragileen laguntzarekin.	H21- Gazteentzako sustapeneko eskaintza hobetzea
		11.-Gaztelekuetan euskararen erabilera sustatzeko programa pilotu bat garatu, euskara eta teknologia berriak uztartuz	18.-Gaztegune+ esperientzia aurreratua osatu
	H6- Haurren garapen pertsonala eta autonomia sustatzea jolasaren eta aisialdiko programen bidez	H14- Nerabeen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta esperimentazioa sustatzeko aisia-programak bultzatu eta eskaintzea	19.- Gazteentzako eskaintza aztertu eta hobetzeko proposamenak egin
	5.- Eskola-kultura, haurrentzako eta nerabeentzako		
		12.-Lokaletan biltzen diren gazteekin gauzatuko den esku-hartzea definitzeko bide-orria egin.	H22-Gazteeen partaidetza indartzeko estrategiak sustatzea
		13.-Erasmus + programan oinarritutako trukeak bultzatu	
	H7- Haurrak herritar aktibo izateko hezkuntza bultzatzea, beren nortasun digitala ahalik eta era positiboenean eratzeko lan egin/laguntzea eta beren partaidetza sustatzea.	H15-Nerabeei beren nortasun digitala ahalik eta era onuragarrienean bizitzen laguntzea	
		14.-Nerabeen irudia lantzeko tresnak jorratu	
	6.- Haurtxokoetan nortasun digitala landu teknologia berrien eta sare sozialen erabilera egokia sustatzeko	H16-Nerabeen partaidetza bermatzea, toki mailako bideak zehaztuz eta arlo komunitarioa garatuz.	
	7.- Sustapen-zerbitzuetan haur eta nerabeen parte-hartzea bultzatu		
	8.- Haurren eta nerabeen partaidetza-sistema artikulatu bat sustatu, udal barruko elkarlana bultzatuz eta arlo komunitarioa garatuz		
		H17- Ingurumenarekiko jarrera jasangarriak eta praktika onak sustatzeko, nerabeak sentsibilizatzea	
		15.- Nerabeak sentsibilizatzeko, ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko praktika onak aztertu	

	KUDEAKETA
Gaztematikaren kudeaketarako partaidetzazko gobernantza bultzatu	H23-Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea.
	20- Haurren eta gazteen inguruan indarra hartzen ari diren gaiak jorratu
	21- HNG-en sustapen-arloko finantziazioa aztertu
	H24-Gaztematikako eragileen elkarlana sustatzea toki zein lurralde mailan
	22- Hezitzaileak kontratatzen dituzten enpresekiko koordinazioa berreskuratu
	H25-Aldundian eta udaletan zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen laguntzea
	23- Lurralde zein toki mailan abian dauden lankidetzak egonkortu
	H26-Komunikazio eraginkorra garatu eta indartzea, batetik, gizartera eta haur, nerabe eta gazteengana iristeko, eta bestetik, eragileei Gaztematika ezagutzera emateko eta koordinatzeko.
	24- Gure zerbitzuei buruzko materialak sortu, herriko eragileentzat egokituta
	25-HNGengana iristeko tresna digitalak sortu eta indartu
	26- HNGen sustapen-arloko esku-hartze birtualaren gaia landu eta arlo honetan dauden praktika onak ikusi
	H27-Gaztematikako profesionalen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzea, berrikuntzarako eremu eta baldintzak sustatuz
	27- Teknikarientzako eta hezitzaileentzako 2019-2020 prestakuntza plana
	28- Gaztematikan sartzen diren langile berrientzako harrera-protokoloa diseinatu
	29- EHUrekin batera, master edo graduondoko bat diseinatu haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko profesionalentzat
	H28- Planifikazioa hobetzea, berariazko diagnostikoak eta ebaluazioak bultzatuz
	30- Gaztesare lanerako baliagarria izateko eguneratu eta moldatu
	31-Gaztematika ebaluatzeko adierazle-sorta zehaztu
	32- HNGen sustapen-zerbitzuak hobetzeko abian dauden prozesuetan lagundu eta berriak sustatu

Bi koadro hauetan kolorea duten gelaxkak helburu estrategikoak dira eta denak H letrarekin eta zenbaki batekin adieraziko dira; zenbaki hutsa dutenak ekintzak dira.

B. Garatuko diren ekintzak

Erronka nagusi horiek eta zehaztutako helburuak kontuan hartuta, honako hau izango da hamaikagarren planean jasotako ekintzen garapena:

H N G K

1. HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA LANTZEKO BIDEAK HAUSNARTU

Helburua:

Ekintza honen baitan hausnarketa egingo dugu, hurrengo legealdiari begira, haur eta nerabeen ongizate emozionala beren sustapenaren ikuspegitik lantzeko bideak zehazteko.

Eta azterketa horretan oinarrituta proposamen bat egin nahi da, aurrera begira, haur, nerabe eta gazteen sustapenetik gaiari heltzeko.

Nola garatuko da?

Lehenengo fasean, haur eta nerabeen ongizate emozionalari buruzko azterketa egingo dugu:

- Zer da ongizate emozionala? Zer gai edo eremu lantzen dira? Zein esparrutatik?...

-Haur eta nerabeen ongizate emozionalaren inguruan zer egiten ari den aztertuko dugu. Administrazioan, hezkuntzan, guraso-eskoletan… garatzen ari diren esku-hartze, programa, webgune, praktika on, aholkularitza, tailer, prestakuntza, etab. interesgarriak identifikatuko ditugu.

-Ongizate emozionalaren arloan lanean ari diren erreferente teknikoak identifikatuko ditugu.

Bigarren fasean, ordura arte egindako lanean oinarrituta, proposamen bat gauzatuko dugu legealdi honetan haur eta nerabeekin ongizate emozionala garatzeko.

Egutegia:

-Haur eta nerabeen ongizate emozionalari buruzko azterketa egitea. Otsailerako.

-Gaia lantzeko proposamena. Maiatzerako.

-Sortutako proposamena partekatu. Proposatzen denaren arabera, teknikari edota hezitzaileekin partekatuko da.

Teknikariekin: Maiatzean ekarpenak jasotzeko saio bat egingo da interesatuta daudenekin.

Hezitzaileekin: Foroak eta komunitatea erabiliko ditugu proposamena partekatu eta ekarpenak jasotzeko.

-Behin betiko proposamena ekainerako osatuko da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Ongizate emozionalari buruzko azterketa	Otsailerako egina
Haurren ongizate emozionala lantzeko eskemaren proposamena	Ekainerako egina

H N G K **2. GURASOTASUN POSITIBOA LANTZEKO AUKERAK AZTERTU**

Helburua:

Gurasotasun positiboaren garapenaren abiapuntu nagusia da 2006ko Europako Ministroen Batzordearen Gomendioa -Rec (2006) 19-, gurasotasun positiboa laguntzeko politikei buruzkoa.

Gomendio horren baitan, gurasotasun positiboaren gaia esparru ezberdinetatik landu da azken urteetan.

Ekintza honen helburua da, legealdiari begira, gurasotasun positiboa haur, nerabe eta gazteen sustapenaren ikuspegitik, lantzeko bideak zehazteko hausnarketa egitea.

Eta azterketa horretan oinarrituta proposamen bat egin nahi da, aurrera begira, haur, nerabe eta gazteen sustapenetik gaiari heltzeko.

Nola garatuko da?

Lehenengo fasean, gurasotasun positiboari buruzko azterketa egingo dugu:

- Zer da gurasotasun positiboa? Zer gai edo eremu lantzen dira? Zein esparrutatik?...

- Gurasotasun positiboaren inguruan zer egiten ari den aztertuko dugu.

Administrazioan, hezkuntzan, guraso-eskoletan… garatzen ari diren esku-hartze, programa, webgune, praktika on, aholkularitza, tailer, prestakuntza, etab. interesgarriak identifikatuko ditugu.

Bigarren fasean, ordura arte egindako lanean oinarrituta, proposamen bat gauzatuko dugu legealdi honetan haur eta nerabeen gurasoekin gurasotasun positiboa garatzeko.

Egutegia:

- Gurasotasun positiboari buruzko azterketa egitea. Otsailerako.

- Gaia lantzeko proposamena. Maiatzerako.


- Sortutako proposamena partekatu. Proposatzen denaren arabera, teknikari edota hezitzaileekin partekatuko da.

Teknikariekin: Maiatzean ekarpenak jasotzeko saio bat egingo da interesatuta daudenekin.

Hezitzaileekin: Foroak eta komunitatea erabiliko ditugu proposamena partekatu eta ekarpenak jasotzeko.

-Behin betiko proposamena ekainerako osatuko da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Gurasotasun positiboari buruzko azterketa	Otsailerako egina
Aurrera begira gaia lantzeko proposamena	Ekainerako egina



H N G K 3. ARLO DIGITALEAN GURASOTASUN POSITIBOA LANTZEKO AUKERAK AZTERTU

Helburua:

Aurreko ekintza bezala, legealdi osoan lantzeko gai bat izango da. Ikasturte honetan lehen pausoak ematen hasiko gara, sentsibilizazioarekin.

Hala, gurasotasun positiboa oinarri hartuta, gaia lantzeko baliabideak prestatuko dira.

Nola garatuko da?

Haurren eta nerabeen gurasoekin eremu digitaleko *gurasotasun positiboa* lantzeko, gaiaren inguruan dauden hainbat material, baliabide, praktika on eta adibide bilduko dira.

Ondoren, kulturadigitala.eus webgunean atal bat eskainiko zaio gaiari, bertan baliabide interesgarriak biltzeko. Atal hau guraso, profesional, erakunde eta eskolentzako gunea izango da.

Ekintza honetan gai desberdinak landuko dira, baina 2019-2010 ikasturtean "Sharenting-az" arituko gara. Horri lotuta, aurten azaroaren 20an, Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunean gai hori izango da oinarria.

Egutegia

- Urriaren lehenengo hamabostaldirako: (Eremu digitaleko) gurasotasun positiboari buruzko materialak jaso.
- Azaroaren lehenengo hamabostaldirako: Kultura Digitalaren webgunean atala eta edukiak sortu.
- Azaroaren lehenengo hamabostaldirako: Azaroaren 20ko kanpainarako materialak prestatu eta zabaldu.

Adierazlea	Estandarra
Kulturadigitala webgunean atal bat sortu eremu digitaleko gurasotasun positiboa lantzeko.	Azarorako argitaratuta
Azaroaren 20ko kanpaina: Sharenting-aren gaia lantzeko materialak prestatu	Egina izatea

H N G K 4. HAURRENGANAKO SEXU-ABUSUEN ERREALITATEA PREBENTZIOAREN IKUSPUNTUTIK LANDU

Lan-taldea

Helburua:

Bi helburu bereizi ditzakegu: lehena, Gipuzkoako Foru Aldundiko bi zerbitzuen lankidetzaren ikuspuntutik, eta bigarrena, gaiaren ikuspuntutik.

1. Bi zerbitzuen arteko barne lanean aurrera egitea, bi arloetako foru- eta udal-teknikariek hautatutako gai/proiektu batean.
2. Haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeriaren inguruko ibilbidea abiatzea ikuspuntu feminista batetik, marko teoriko eta kontzeptual bat eraikitze-lanari ekinez.

Nola garatuko da?

Lau lansaio izango dituen ibilbideari ekingo diogu; guztiak 2019ko irail eta abendu bitartean burutuko dira, eta irekiak izango dira haur, nerabe eta gazteen sustapeneko eta berdintasun-arloko toki-zein foru-teknikarientzat.


Egutegia:

Lansaioak burutzeko egutegia eta egitaraua:

- 1. saioa, irailaren 27an
  "Indarkeria matxistaren marko teoriko eta kontzeptualean sakondu eta haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeria marko horretan kokatu"
- 2. saioa, urriaren 25ean
  "Haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeriara hurbilpena: diagnostikoa, ezaugarriak eta dituen ondorioak"
- 3. saioa, azaroaren 29an
  "Zer egiten dute egun administrazio publikoek haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeriaren aurrean?"
- 4. saioa, abenduaren 13an
  "Nola lotu landutakoa eta prebentzioa?"

Lehen fase hau burutzeko, otsail aldean jardunaldi bat egingo da, kanpoko hizlariak gonbidatuz.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Lansaioetan egon den partaidetza	Guztietan % 80
Lansaioen balorazioa orokorra	7.5



H N G K 5. ESKOLA-KULTURA, HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO

Helburua:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, "Eskola Kultura" izeneko egitasmo berria abian jarri nahi du. "Eskola Kirola" ekimenarekin egiten den moduan, egitasmo honen helburua da haur eta gaztetxoengan praktika eta ezagutza kulturalak bultzatzea, kultur alor ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera emanez.

Egitasmo honen lidergoa eta aurrekontua Aldundiaren Kultura Zuzendaritzak eramango badu ere (Kulturaren Sustapena eta Hedapena ataletik), HNGen Sustapena ere egitasmoaren parte izatea eskatu digute. Gure helburua, beraz, hasieratik lehen eskuko informazioa izan eta programaren diseinuan parte hartzea izango da, eragileen arteko lankidetza eta informazioa bermatuz, eta gure sarearen helburu eta baloreak programan txertatuz.

Nola garatuko da?

Ekimena berria denez, lehen lana hori berau diseinatzea izango da. Horretarako, Kulturaren Sustapena eta Hedapena atalak ezarriko duen egutegia jarraituz, hurrengo ikasturtean zehar bilerak eta lansaioak antolatuko dira Foru mailan. Egitasmoaren garapenaren eta norabidearen arabera, sare mailako bilerak edota lansaioak antolatu ahal izango dira.

Egutegia:

2019-2020 ikasturtean programaren diseinua eta 2020-2021 ikasturtean martxan jartzeko prestaketa-lanak egitea aurreikusten da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Programaren diseinuaren dokumentua	Egina

H N G K

6. HAURTXOKOETAN NORTASUN DIGITALA LANDU TEKNOLOGIA BERRIEN ETA SARE SOZIALEN ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO

Lan-taldea

Helburua:

Ekintza honen helburua da haurrei arlo digitalean trebatzeko tresnak eskaintzea, beren nortasun digitala sortzen hasten direnean era egokian egin dezaten. Horretarako, teknologia berrien eta sare sozialen erabilera aproposa sustatuko da, haurrak zuzenki inplikatuz.

Nola garatuko da?

Aurreko ikasturtean haurren hezitzaileekin kultura digitalaren gaia lantzen hasi ginen, haien beharrizanak zeintzuk ziren identifikatuz. Hiru foro ezberdinetan haiekin lan egin ostean, ondorioztatu genuen Youtube zela adin-tarte honetan gaiari heltzeko biderik eraginkorrena. Oinarria prebentzioa izanik, sei haurtxokok erabaki zuten haurrek balore hezitzaileetan oinarritutako ekintza ezberdinak (dinamikak, hitzaldiak…) burutuko zituztela Youtube sare sozialean. Hortaz, ikasturte honetan haurtxoko horiek martxan jarriko dute planteatukoa. Gure zeregina izango da prozesu horretan laguntza eskaintzea, materialak euren testuinguruetara egokituz. Ekintza amaitutakoan, haurtxokoetako hezitzaileek esperientziaren berri emango dute, besteentzako eredugarri bihur dadin.

Bestalde, haurrek nortasun digital osasuntsu bat izateko dekalogo bat sortuko da hainbat euskarritan. Asmoa da materiala haurtxokoen eskura jartzea, gaia umeekin lantzeko.

Egutegia

- Urrian: Lurraldeko sei haurtxoko ezberdinekin harremanetan jarriko gara urtean zehar Youtubeko zein dinamika landuko duten adosteko. Harremana hezitzaileekin eta teknikariekin egingo da.

- Urritik aurrera: Nortasun digital osasuntsu baterako dekalogoa sortuko da.

- Urtean zehar: Haurtxokoetan lantzen ari diren dinamiken segimendua egingo da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Hezitzaileen balorazioa jaso	7
Nortasun digitalaren dekalogoa	Abendurako egina

H N G K

7. SUSTAPEN-ZERBITZUETAN HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA BULTZATU

Helburua:

Aurreko legegintzaldian saiatu ginen Gaztematika osatzen duten zerbitzuen erabiltzaileen iritzia modu bateratuan jasotzen. Hezitzaile eta teknikarien artean adostutako bideari jarraituz, egindako lana ebaluatzeko bilera egin genuen aurtengo ekainean. Bilera horretan egindako hausnarketa eta ateratako ondorioetan oinarritzen da ikasturte honetarako egiten dugun proposamena. Laburbilduz, bi dira ondorioztatutako ideia nagusienak:

1.- Zerbitzu gehienetan modu batera edo bestera erabiltzaileen iritzia jasotzen bada ere, informazio hori ez da behar bezala erabiltzen; beste modu batera esanda, zerbitzu

askotan, iritzia jasotzera mugatzen dira prozesuaren hurrengo pausoak eman gabe. Hau da: informazioa hausnartu, erabiltzaileekin partekatu eta zerbitzuaren hobekuntzarako hurrengo planifikazioan kontuan izan.

2.- Erabiltzaileen iritzia modu bateratuan jasotzearen onurak ez dira ikusten; are gehiago, zailtasun edo oztopo bezala bizitzen dute gehienek adostutako moduan eta momentuan egin behar izatea.

Gauzak horrela, eta aurreko urteetan egindako lanari jarraipena eman nahian, 2019-20 ikasturterako proposatzen dugun helburua da erabiltzaileen iritzia jasotzeko lana prozesu moduan garatzea; horretarako, orain arte erabilitako sistema bateratua abiapuntutzat hartuko da. Espero dugu lanketa honen baitan aukera izatea sarean lan egiteak dituen eskakizunez eta abaintalez hausnartzeko.

Nola garatuko da?

Toki mailan:

Herri bakoitzeko HNGen sustapen-zerbitzuen planifikazioan erabiltzaileen iritzia txertatzeko behar den prozesua garatu beharko litzateke. Lan horretan teknikariak egin behar duen segimendua errazteko eta horretan laguntzeko, prozesua planifikatu eta sistematizatzeko gakoak identifikatuko ditugu Bulegoan. Prozesua bere osotasunean irudikatzeko faseak ezberdindu, eta bakoitzean egiteko garrantzitsuenak azpimarratzen saiatuko gara. Hemen laburpen bat:

1. Planifikazioa

Zerbitzuaren planifikazioa egiteko garaian, ebaluaziotik abiatu beharko ginateke, eta bertan jasota egon beharko litzateke erabiltzaileen iritzia. Horri buruzko hausnarketak jarraian jasotzen diren puntuak jorratu beharko lituzke:

- Erabiltzaileek esan digutenaren arabera: zer mantendu, aldatu, moldatu beharko genuke zerbitzuan?
- Jasotako informazioa nahikoa ez delako ezin badiogu lehenengo galderari erantzun, nola lortu dezakegu informazio gehiago edo hobeago? Hausnarketa honek bi atal nagusi izango lituzke:
  - Batetik, zeri buruzko iritzia jakin nahi dugun aztertu behar genuke. Printzipioz, sistematizazioan bereizitako 4 eremuetatik abiatuko genuke hausnarketa: Egokiak dira? Zerbait falta da? Zerbait soberan dago?
  - Bestetik, komeni da iritzia nola jasotzen dugun aztertzea: Egokia da erabilitako metodologia? Nola hobetu? Nola egokitu gehiago erabiltzaileen ezaugarrietara? Momentu egokian jaso da?
- Zeintzuk dira erabiltzaileak? Erabiltzaileei buruzko informazio nahikoa daukagu? Hobetu behar dugu?
- Zeintzuk dira helburuak erabiltzaile motari edota kopuruari dagokienez?

Hausnarketa horretatik bi emaitza atera beharko genituzke, besteak beste:

- Ikasturteko planifikazioan erabiltzaileek emandako informazioarekin osatutako ekintzak jasotzea.
- Planifikazioan lan-ildo gisa jasota egotea erabiltzaileen iritzia jasotzea.

2. Garapena

Planifikazioan jasota egongo dena betez, erabiltzaileen iritzia nola eta noiz jasoko dugun zehazten joan beharko gara, zerbitzuaren garapen orokorrarekin uztartzen saiatuz. Prozesuan aurreikusita egon beharko du, halaber, informazioaren deboluzioak: hau da, haur eta nerabeekin noiz eta nola partekatuko dugun informazioa.

3. Ebaluazioa

Fase honetan ere bi planotan egin beharko dugu balorazioa:

- Batetik, zerbitzuaren ebaluazio orokorrean erabiltzaileen iritzia txertatu, eta zerbitzua hobetzeko erabakiak hartzeko erabili.
- Bestetik, iritzia jasotzeko prozesua bera ebaluatu: informazio nahikoa, esanguratsua eta fidagarria jaso den aztertu; nola egin dezakegun prozesua partaidetzazkoagoa; informazioa nola eta norekin partekatu den aztertu, eta horretan ere nola hobetu pentsatu.

Lurralde mailan:


Gorago azaldutakoa toki mailan garatzeko laguntza ematen saiatuko gara, Bulegoan ohiko lankidetzaren baitan lan-ildo honen segimendua eginez.

Horrekin batera, uste dugu lagungarria izan daitekeela teknikariek eta hezitzaileek elkarrekin gaiari buruz hausnartzea, ikuspegiak eta kontzeptuak bateratzeko. Prozesua bideratu eta dinamizatzeko kanpoko laguntza izango dugu: hezitzaileen prestakuntza-arduradunarekin batera, Prometearekin ari gara lanketa hori prestatzen. Aurtengo prestakuntza-eskaintzaren baitan kokatzen dugu prozesua.

Horretaz gain, nahi duenak adostutako gutxienekoak mantenduz prozesua garatzen jarraitu dezakeenez, zehaztutako momentu eta bideetatik datuak bildu eta ustiatzen jarraituko dugu. Sarreran esan bezala, toki mailan egindako lanaren ondorioz espero dugu bai teknikariak eta bai hezitzaileak kontzienteagoak izatea sarearen parte izatearen baldintza eta ondorioez; eta bide batez, prozesua modu bateratuan egitearen onuraz jabetzea.

Horretarako, prozesuaren baitan egindako hausnarketan beste atal bat gehitu beharko litzateke: Zer informazio daukat Gaztematikako beste zerbitzuei buruz? Zer informazio ematen dut nik nire zerbitzuei buruz? Zertan laguntzen dit informazio horrek? Nola hobetu? Zer beharko nuke?

Bi mailatan gauzatu beharko dugun prozesuaren urrats nagusiak, laburbilduz



ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Iritzian oinarritutako planifikazioa egiten dutenen kopurua[1]	2 haurtxoko/4 gazteleku
Haurren iritziari buruzko informazioa bidaltzen duten herrien kopurua	3 baino gehiago
Nerabeen iritziari buruzko informazioa bidaltzen duten herrien kopurua	21 baino gehiago

[1] Adierazlea ezingo dugu 2020ko ekainean neurtu; hurrengo ikasturtea planifikatu arte itxaron beharko dugu.

H N G K

Lan-taldea

8. HAURREN ETA NERABEEN PARTAIDETZA-SISTEMA ARTIKULATU BAT SUSTATU, UDAL BARRUKO ELKARLANA BULTZATUZ ETA ARLO KOMUNITARIOA GARATUZ

Helburua:

Aurtengo talde-hausnarketa bideratuko da haur eta nerabeen partaidetza modu sistematikoan artikulatzeko oinarrizko irizpideak zehaztera. Horren baitan, ahalegina egingo da ezinbestekoa den udal barruko elkarlana bultzatzeko eta arlo komunitarioa garatzeko lagungarriak izan daitezkeen orientabideak zehazteko.

Nola garatuko da:


HNGen sustapenaren bidez azken finean lortu nahi genukeena da haur eta nerabeek aukera izatea beren bizitzan eragiten duten arlo guztietan erabakiak hartzeko eta, bide batez, beren herrietako elkarbizitzan eragitea. Haur eta nerabeen partaidetza horrela ulertuta, uste dugu horren sustapena arlo komunitarioaren garapenarekin lotuta dagoela. Horregatik, komenigarri iruditzen zaigu horri buruzko hausnarketatik abiatzea, eta taldeko lehenengo saioak horretarako erabiltzea proposatzen dugu. Horrela, bide batez, ikasturte honetarako aurreikusita dagoen irteera prestatzen has gaitezke; gertuko esperientziak aztertuz, bisitatzeko interesgarria izan daitekeena taldean aukeratu daiteke. Iaz bezala, aurten ere, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzarekin elkarlanean prestatu dezakegu gaiaren lanketa.

Ondorengo saioetan egiteko proposatzen duguna da Bulegoan sortutako zeharkakotasuna lantzeko gida aztertu eta ekarpenak egitea.

Horretaz gain, haur eta nerabeen partaidetzari buruzko informazioa biltzen eta partekatzen jarraituko dugu, horretarako komunitateko profila erabiliz. Arreta berezia jarriko dugu haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko dauden sareen eta egituren segimenduan, Haurren hirien Sarea eta Ciudades amigas de la infancia, besteak beste.

Egutegia:

Talde-lanaren ebaluazioa egiterakoan erabaki zen hurrengo ikasturtean gehienez 4 bilera egitea. Lehenengo bileran honako egutegia proposatuko da, adosteko:




Printzipioz, taldeko partaideak iazko berak izango lirateke, baina ikasturte-hasieran epea zabalduko da taldearen osaera finkatzeko: hau da, iazkoek partaidetza baieztatzeko eta partaide berriek sartzeko.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Irteera antolatzeko lekua proposatzea	Egitea
Partaideen balorazioa	Aurreko ikasturtekoa hobetu (7,16)

H N G K

9. INSPIRA-STEAM EGITASMOA GAZTELEKUETAN GARATU.

Lan-taldea



Helburua:

Iaz hasitako Gaztematika eta Deustuko Unibertsitateko Deustu LearningLab taldearen arteko lankidetzari eusteko asmoa dago, Inspira STEAM egitasmoa gaztelekuetan garatzeko. Programa horren bidez lortu nahi duguna da, nerabeen kalitatezko astialdia sustatzearekin batera, gazteengan (eta batez ere, nesken artean) bokazio zientifiko-teknikoak sustatzea.

Nola garatuko da?

Gorago aipatutako helburua lortzeko sentsibilizazio eta orientazioko ekintzak egingo dira, ikerketa, zientzia eta teknologiaren arloetako emakume profesionalen eskutik. Ikasturtean zehar, mentore horiekin batera, gaztelekuetako hezitzaileek 3 saio egingo dituzte gazteekin gaia lantzeko. Iazko esperientziaz baliatuko gara saioen metodologia eta edukia hobetzeko.

Egitasmo honetan parte hartu nahi duten gaztelekuek aukera izango dute ikasturte hasieran izena emateko eta, printzipioz, aurten ere 5 gaztelekutan garatzeko aukera egongo da. Komenigarria litzateke izena eman aurretik taldean hausnartzea eta hezitzaileekin batera erabakia hartzea; horrez gain, egokia litzateke inspira-STEAM egitasmoa “berdintasuna” lantzeko planifikazio orokorrago baten baitan kokatzea gaztelekuan.

Egutegia:

Egutegian jaso ditugu soilik antolatzaileekin batera egin beharrekoak; baina, gorago aipatutakoa kontuan izanik, herri bakoitzean lan zabalagoa egin beharko litzateke proiektua garatzeko.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Nerabeen balorazio orokorra	8
Gaztelekuaren planifikazioan txertatzea	Partaideen % 100
Hezitzaileen partaidetza talde-bileretan	% 80
Teknikarien partaidetza talde-bileretan	% 75

H N G K

10. NERABEEN HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALARI BURUZ HAUSNARTU

Helburua:

Nerabezaroan afektibitate- eta sexu-hezkuntzak nerabeen garapen integralerako duen garrantziaz jabeturik, datozen urteetarako gure asmoa da, alde batetik, harreman afektibo osasungarriak eta sexu-hezkuntza sustatzea, eta bestetik, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua bultzatzea.

Ikasturte honetan, zehazki, ekintza honen helburua da nerabeen hezkuntza afektibo-sexualaren inguruan burutzen ari diren programak eta zerbitzuak aztertzea; eta ondoren, proposamen bat

osatzea, HNGen sustapenzzerbitzuetan nerabeekin aritu eta haietaz arduratzen direnekin sentsibilizazio- eta prebentzio-lana egiteko.

Nola garatuko da?

1. fasea – Hasierako hausnarketa. Urria – Abendua.

   Nerabeen hezkuntza afektibo-sexualaren inguruan egiten ari dena bildu eta honako alderdi hauek aztertuko dira: martxan dauden programak eta zerbitzuak, ingurune hurbileko adituak eta profesionalak, sortu diren materialak, eta azkenik, kanpainak eta komunikazioari dagozkionak.

2. fasea – Nerabeen errealitatea ezagutzea. Urtarrila - Otsaila

   Nerabeek sexualitatea nola bizi duten ezagutzeko, gerturatze-lana egingo da: nerabeen harreman afektibo-sexualak, genero-identitatea, arrisku-egoerak, sexua drogekin eta alkoholarekin lotzen denean, komunitate birtualeko errealitatea, pornografia eta abar.

3. fasea – Etorkizunera begirako proposamena. Martxoa - Maiatza

   Hausnarketatik ateratako ideia nagusiekin txostena osatuko da. Eta aurrera begira, Gipuzkoako nerabeekin eta zerbitzuetako beste hartzaileekin zein profesionalekin sexu hezkuntza egiteko bidea(k) identifikatuko dira hurrengo urteetarako.

   Aldundian egingo da azterketa-lana; eta Komunitatea erabiliko da Gipuzkoako errealitatearen informazioa osatu, eta udal-teknikarien zein hezitzaileen ekarpenak jasotzeko.

   Azterketaren amaieran, Gipuzkoako nerabeen hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko bide batzuk proposatuko dira, betiere HNGen sustapen-arloak gara ditzakeenak.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Nerabeen hezkuntza afektibo-sexualaren errealitatea eta garatzen ari diren programak eta praktika onak ezagutzea eta aztertzea	Egina
Nerabeekin zerbitzuetan hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko proposamena(k) izatea	Txostena

H N G K

11. GAZTELEKUETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA PILOTU BAT GARATU, EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTUZ

Deialdia

Helburua:

Nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko, gaztelekuetan programa pilotu bat garatzea, euskara eta tresna teknologikoa uztartuz.

Nola garatuko da?

Nerabeentzako erakargarria den eta hizkuntza-erabilera helburu duen proiektu bat garatu nahi da gazteleku batzuetan. Proiektua zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira gazteleku bakoitzeko parte-hartzaileak, ezaugarriak eta baliabideak, eta baita genero ikuspegia eta aniztasuna ere.

Nerabeentzako Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen hezitzaileentzako gidaren arabera, horien ardura da euskararen erabilera sustatzea hezitzaile berritsu moduan. Proiektu horren

bidez, hezitzailearen papera indartzeaz gain, protagonismoa nerabeei eman nahi diegu. Horretarako, jardueraren uneak eta guneak baliatuz, tresna teknologikoak erabiliko ditugu hizkuntza indartzeko.

Proiektua garatzeko honakoa kontuan hartuko da: alde batetik, nerabeen artean euskara erabiltzea ezinbestekoa izango da, eta bestetik, hezitzaileek laguntza eskainiko diete elkarrizketetan parte hartuz. Errefortzu positiboak emanez, nerabeek euskararekin bizipen onak izan ditzaten lortu nahi dugu.

Programa pilotua garatzeko euskara eta teknologia berriak uztartzen esperientzia duen entitate baten laguntza izango dugu. Proiektuaren segimendua egingo da eta, amaieran, balorazioa; beste gaztelekuetan martxan jartzeko baliagarria izan dadin, ondorioak txosten batean jasoko dira.

Egutegia:

- Urrian - Azaroan: Proiektua diseinatzea eta osatzea.
- Abenduan: Gaztelekuak aukeratzea eta proiektua teknikariei eta hezitzaileei aurkeztea.
- Urtarrilean - Apirilean: Proiektua garatzea, segimendua egitea eta komunikatzea.
- Maiatzean: Proiektua ebaluatzea eta taldearen balorazioa jasotzea.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Gaztelekuetan programa pilotu bat garatu eta ebaluatzea	2 gaztelekutan
Garatuko den programa pilotua dokumentatzea, emaitzak eta aukerak laburtuz	Dokumentua

H N G K 12. LOKALETAN BILTZEN DIREN GAZTEEKIN GAUZATUKO DEN ESKU-HARTZEA DEFINITZEKO BIDE-ORRIA EGIN

Helburua:

Azken urteotan, gazte lokalek berezko tokia hartu dute hainbat udaletan eta asko izan dira eremu horretan esku hartu duten edo esku hartzekotan dauden udalak, Gipuzkoan zein EAEn ere[2]. Gehienetan, udaletatatik lokaletara gerturatzeko arrazoiek ikuspegi ezkorra izan ohi dute edo, segurtasun kontuak direla medio, bete beharreko arautegi baten baitako ahaleginak izan dira.

Aurreko planean 16-18 urtekoei zuzendutako esku-hartzea bideratzeko zailtasunak zeudela ikusirik, Zaletu egitasmoaren bitartez egin zen haieingana iristeko saiakera. Zaletu ondoren egindako ebaluazioan, estrategia desberdinak lantzeko beharra nabaritu zen, eta ekintza honek egoera horri erantzun bat eman nahi dio ikasturte honetan. Beraz, ekintza honen bidez, 16-18 urtekoen autonomia mailari hobeto egokitutako eskaintza bat diseinatzeko saiakera egin nahi da; nerabeak zerbitzura erakarri beharrean, indarrak zerbitzua nerabeak dauden lekura gerturatzean jarriko dira, esku-hartze apropos bat diseinatzeko.

Hori horrela, ekintza honen helburua litzateke gazte-lokaletan esku hartzeko proposamen bat lantzea, 16-18koen beharretara egokituko den zerbitzu bat eskaintzeko asmoz.

[2] Gazte lokaletan esku hartzeko Gipuzkoako sustapen teknikarien hausnarketa eta proposamena, 3.orr. (Gaztematika).

Nola garatuko da?

Gaztematikaren baitan lokalei buruzko proposamen bat landu zen 2014an. Dokumentu horretan jaso zen partaidetzan oinarritutako esku-hartze bat bideratzea litzatekeela egokiena lokal hauekin nola lan egin diseinatzeko orduan. Nahiz eta saiakera desberdinak izan (arautegiak, ordenantzak, bitartekaritzak…), uste dugu ez direla nahikoa izan.

Horregatik, dagoeneko martxan dauden egitasmoak kontuan hartuko dira, eta dokumentazio-fase baten ondoren (Donostian edo Irunen egin direnak aztertuko dira, besteak beste), abiapuntu moduan bide-orri bat diseinatzea proposatzen da gazte-lokaletan dauden 16-18 urteko nerabeekin gauzatzeko esku-hartzea zehazteko.

Hau Bulego Teknikoaren ardura izango litzateke, eta hezitzaileen eta HNGen sustapen-teknikarien lansaio bat ere aurreikusten da, non bide-orriari buruzko ekarpenak jasoko diren eta hausnarketa egingo den.

Egitasmo desberdinetan jasotako dokumentazioaz gain, EHUk egindako ikerketa batez baliatuko gara (“Claves metodológicas para la acción socioeducativa en lonjas juveniles”), eta baita Gaztematikak gaiari buruz egin dituen dokumentu desberdinez ere, bertan agertzen diren kontzeptu esanguratsuek gaiaren inguruan esku hartzeko markoa definitzeko gakoak emango dituztelakoan.

Prozesuaren amaieran izango dugun bide-orriaren baliagarritasuna aztertzeko, ikasturte bat baino gehiago beharko ditugula aurreikusten da.

Egutegia:

- Iraila - Abendua: Gaiari buruzko dokumentazioa eta bibliografia aztertzea.
- Urtarrila - Martxoa: Esku hartzeko bide-orria diseinatu.
- Apiriletik ikasturte amaiera arte: Bide-orriari ekarpenak egiteko lansaioa teknikari eta hezitzaileekin.
- Maiatza - Ekaina: Komunitatearen bidez lansaioan gertatutakoak partekatu, eta hurrengo ikasturtean probatzeko prest egongo liratekeen herrien eskaerak jaso.
- Uztailean: Prest egongo lirateeken herriekin hurrengo ikasturtean egitekoak zehazten hasi.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Bide-orria diseinatu	Egin da
Saioaren balorazio orokorra	7
Hurrengo ikasturtean bide-orria probatzeko prest dauden herrien kopurua	3

H N G K 13. ERASMUS+ PROGRAMAN OINARRITUTAKO TRUKEAK BULTZATU

Deialdia

Helburua:

Aurreko ikasturteetan egindako lanari jarraipena emanez, aurten ere udalekin batera Erasmus+ programak eskaintzen dituen aukerak aztertu eta aprobetxatuko dira, nerabe, gazte eta profesionalentzako proiektuak sustatuz.

Nola garatuko da?

Interesa duten Gipuzkoako sustapen-teknikariekin talde bat sortuko da gaia jorratzeko. Lehenengo bileran programa bera ezagutzera emango da eta, udalen interesen arabera, proiektuak diseinatzeari ekingo zaio. Hilero bilerak egitea aurreikusten da, hasieran taldeka eta ondoren proiektuka.

Egutegia

Bilerak urrian hasiko dira eta ekaina bitartean hilero bilera bat egingo da proiektu bakoitzean dauden udalekin.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
2020ko Erasmus deialdietan aurkeztutako proiektuak	3 proiektu

H N G K 14. NERABEEN IRUDIA LANTZEKO TRESNAK JORRATU

Helburua:

Ekintza honen helburua da nerabeen irudiaren babesak dituen alderdi desberdinak (datu-babesa, pribatutasuna, hatz digitala, erreputazioa, publizitatea, komunikabideak, jokabidea, araudia…) jorratzea, gazteek beraiek nahiz haiekin lanean aritzen garenok beren irudia segurtasunez eta modu positiboan erabili eta garatu ahal izateko.

Nola garatuko da?

Ikasturte honetan gre asmoa da gaia hezitzaileekin batera lantzea, eta irudiaren trataerari eta babesari buruzko protokolo bateratu bat garatzea.

Horretarako, kontuan hartuko dira beste esperientzia batzuk, adituen ezagutzak eta komunikazio-bulegoan jaso diren eskaerak; eta oinarria betiere hezitzaileei beren eguneroko lanean sortzen zaizkien zalantzak eta beharrak izango dira.

Urtarriletik aurrera, martxoko hezitzaileen foroan gaia aurkeztu, eta hezitzaileen beharrak nola identifikatuko diren zehaztuko da.

Apirila baino lehen, hezitzaileen prestakuntza-eskaintzaren baitan gaiari buruz aditu batek emango duen ikastaroan behar horiek argituko dira.

Ikastaroan eskainitako argibideak nahiz dokumentazioa eta foroetan jasotako esperientziak bilduz, protokolo bat egingo da. Horren helburua da hezitzaileei tresna bat eskaintzea eguneroko lanean sortzen zaizkien zalantzei aurre egiteko.

Egutegia

- Urtarriletik martxora: Gaia lantzeko materiala bildu, eta Hezitzaileen Foroan gaia aurkeztu eta beharrak identifikatzeko proposamena garatu.

- Martxoa: Batetik, hezitzaileen foroan gaia landuko dela jakinarazi eta beharrak jaso. Bestetik, ikastaroa eman behar duen adituari behar horiek helarazi, ahal bada, ikastaroak behar horiei erantzuteko.

- Apirila: Ikastaroko dokumentazioa jaso eta, adituaren iritzia eta hezitzaileen beharrak kontuan hartuz, protokolo baten diseinua egiten hasi.

- Maiatza: Ikasturte bukaerako foroan (maiatzean) emaitza aurkeztu.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Nerabeen irudia babesteko protokoloaren diseinua eta aurkezpena	Ikasturte bukaerarako aurkeztea.

H N G K 15. NERABEAK SENTSIBILIZATZEKO, INGURUMENARI ETA JASANGARRITASUNARI BURUZKO PRAKTIKA ONAK AZTERTU

Jasangarritasuna eta ingurumenaren babesa mundu mailako erronkarik handienetakoak dira; besteak beste, beren baitan hartzen dituztelako kontsumo-ereduak, bizimoduen inguruko jarrerak, aldaketa klimatikoaren larritasuna eta garapen jasangarria eta inklusiboa.

Helburua:

Ekintza honen bidez, nerabeen artean jarrera jasangarriak eta arduratsuak sustatu nahi ditugu, batez ere, kontsumo arduratsuarekin, mugikortasun iraunkorrarekin eta ingurumen-erantzukizunarekin lotuta. HNGen sustapenetik eta sentsibilizazio mailan, nerabeen gaitasun kritikoa lantzen hasi nahi da, jasangarritasunaren inguruko interesa pizteko.

Ikasturte honetan, ingurumenaren eta jasangarritasunaren inguruko praktika onak bildu eta aztertuko ditugu.

Espero da praktika onen azterketak orientazioa eta gomendioak emango dituela nerabeen sentsibilizazioa lantzearen inguruan.

Nola garatuko da?


- Hasieran, jasangarritasunari eta ingurumenari buruzko programak eta ekimenak identifikatu, ezagutu eta aukerak aztertuko ditugu, bereziki nerabe eta gazteei dagozkienak. Urria - urtarrila.
- Ondoren, gaztelekuetan nerabeekin sentsibilizazio-lana egiteko aukerak aztertuko ditugu, dagoeneko egiten dena kontuan hartuz. Otsaila.


- Azkenik, praktika onak bilduko dira. Horrekin batera, plegu teknikoak osatuko dira gida bat enkargatu ahal izateko. Apirila - maiatza.

Nerabeen ataleko arduradunak egingo du bilketa eta azterketa; baina beharrezkoa izango da gaztelekuetako arduradunekin partekatu eta haien ekarpenak jasotzea.

Gaztematika Komunitatearen bidez ekintzaren berri emango da eta ekarpenak jasoko dira.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Praktika onen bilketa eta azterketa egitea	Txostena
Zerbitzuetan hezitzaileek nerabeekin gaia lantzeko, (gida bat osatzeko) enkargua zehaztua izatea	Egina





H N G K 16. UDALEK AFEKTIBITATEA ETA SEXUALITATEA LANTZEKO GAZTEEI ESKAINTZEN DIETENA AZTERTU

Helburua:

Gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzeko asmoz, aurten sakondu egingo da, sustapenaren ikuspuntutik udalek jadanik baduten eskaintzan. Horretarako, hiru helburu bilatuko dira:

- Udalek jada baduten eskaintza ezagutzea
- Eskaintza horretan edukiak lantzeko ereduak aztertzea
- Eskaintza horiek indartzeko proposamena osatzea

Nola garatuko da?

Lehenik, aztertuko eta zerrendatu egingo dira udalek gazteei eskaintzen dizkieten zerbitzu egonkorrak eta baita noizbehinkakoak ere: nolako eduki-mota eskaintzen duten, zein arlo ukitzen dituzten, zer metodologia erabiltzen duten, zer bezero-mota gerturatzen den eta abar.

Horretarako, honako metodologia erabiliko da:


- Udalen eskaintzaren azterketa
- Udalen eskaintzaren mapeoa osatzea
- Hiru sexualitate-zerbitzu/eskaintzarekin elkarrizketa egitea (gu gerturatuko gara eta udal-teknikariarekin eta zerbitzuko langileekin lan egingo dugu).
- Bilera bat antolatzea zerbitzu-emaileen proposamenak eta iritziak jasotzeko.
- Materialak eta emaitzak aztertzea
- Eskaintza indartzeko proposamena idaztea

Egutegia:

- Urria - Abendua: Udalen eskaintzaren azterketa eta mapeoa osatzea
- Urtarrilean: Iritziak eta ekarpenak jasotzeko saioa
- Otsaila - Martxoa: Materialen eta emaitzen azterketa

Apirila: eskaintza indartzeko proposamen idatzia

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Udalen eskaintzaren mapa	Eginda
Proposamen idatzia	Eginda



H N G K 17. GIPUZKOAN GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZEN INGURUAN ABIAN DAUDEN EGITASMOAK JASO

Helburua:

Gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea errazteko, uste dugu ezinbestekoa dela Gipuzkoako hainbat udaletan jada aurrera eramaten ari diren esperientziak ezagutzea, eta baita gaiari buruzko gogoeta bultzatzea ere, bai Gaztematika sareko teknikarien artean, bai kanpoko eragileen laguntzarekin. Hain zuzen ere, aurten EGKrekin sinatutako hitzarmenaren bidez beraiek ere ekintza garatuko dute.

Beraz, aurten ekintza honekin honako helburu hauek landuko dira:

- Udalen eskaintzaren mapeoa osatzea.
- Emaitzak Gaztematikan partekatzea
- Mintegi baten diseinua osatzea.

Nola garatuko da?

Lehenik, udalek gazteei jada eskaintzen dizkieten egitasmoak, dirulaguntzak, esperientziak edo zerbitzuak aztertu eta jasoko dira. Era berean, kontuan hartuko da gaur egun zeintzuk diren zerbitzu horien hartzaile izateko baldintzak eta norengana bideratzen ari diren. Halaber, EGK egiten ari den ekarpenak eta saioak ezagutuko dira.

Lana burutzeko honako metodologia erabiliko da:


- Udalen eskaintza aztertzea
- Udalen eskaintzaren mapa osatzea
- Udal-zerbitzu horien arduradunekin elkarrizketak egitea (gu gerturatzea)

- EGK-ko teknikariarekin elkarrizketa izatea
- Material eta esperientzien azterketa
- Txosten idatzi bat osatzea
- Topaketa-proposamen bat bideratzea

Egutegia:

- Urria - Abendua: Udalen eskaintza aztertu eta mapa osatzea
- Azaroa - Abendua: Elkarrizketak egitea
- Urtarrila - Martxoa: Materialen eta emaitzen lanketa
- Apirila: Txostena idaztea eta topaketa-proposamena bideratzea

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Gazteek etxebizitza eskuratzeko udalak bideratzen ari diren esperientzien mapa	Eginda
Txosten idatzia	Eginda



H N G K **18.** **GAZTEGUNE PLUS ESPERIENTZIA AURRERATUA OSATU**

Deialdia

Helburua:

2018-2019 ikasturtean Gaztegune Plus gazteentzako zerbitzua definitu eta martxan jarri zen, baina ez bere osotasunean. Eta ikasturte honetan zerbitzua inplementatzen jarraituko da.

Nola garatuko da?

Gaztegune Plusen arlo ezberdinak era horretan garatzea proposatzen da:

1) Gazteen Ekimenak

a. Gazteek garatutako proiektuak: aurreko ikasturtean lehen saiakera bat egin zen gazteen artean ekimenen diseinua sustatzeko; horretarako, gazteekin aurkezpen-bilerak egin ziren hainbat udalekin elkarlanean. Hala ere, 2019ko Gazteak Auzolanean diru-laguntzen epeek mugatuta, gazte-taldeekin egindako lana ez zen ahalduntze-protokoloetan oinarritu, hau da, gazte-taldeei egindako segimendua ez zen izan aurreikusita zegoena bezain gertukoa. Beraz, hemendik aurrera gazteekin egingo den lanean garrantzi handiagoa emango zaio ideien garapen-prozesuari.

b. Administrazioak garatu beharreko proiektuak: ildo berri bat irekitzeko saiakera egingo da, Gipuzkoako gazteek lurraldean sumatzen dituzten beharrei aurre egiteko proiektuak proposa ditzaten. Aldundiak egokienak direnak garatzeko konpromisoa hartuko du.

c. Elkarteekin garatzeko proiektuak: Gazteguneko elkarteekin lan berezia egingo da zerbitzu berria ezagutzera emateko eta gazteei harrera egin diezaieten. Hala, gazteek beren ideiak eta proiektuak elkarteekin batera garatzeko aukera izan dezakete.

2) Prestakuntza Laborategiak: Gazteek izan ditzaketen prestakuntza-beharrei aurre egiten hasteko, bi laborategi martxan jartzea aurreikusten da:

a. Parte-hartzea: gazteak eta administrazioaren arteko harremana

b. Gazteria-arloan gizarte-proiektuak garatzeko gaitasunak eskuratzea

Laborategi hauek gazte-talde finkoekin eta adituen laguntzaz egingo dira. Aldi berean, Gaztegune Plusen eduki behar duen ahalduntze-eskolaren programa zehazten joango da.

3) Parte-hartzea

Arlo hau garatzeko, "Parte-hartzea: gazteak eta administrazioaren arteko harremana" laborategitik lortuko diren emaitzak eta esperientziak erabiliko dira.

Gaztegune Plus eta udalen arteko elkarlana:

Gaztegune Plus esperientzia aplikagarria izan daiteke udal mailan, eta hau ezin da ahaztu zerbitzua garatzeko orduan. Elkarlanerako interesa azaldu zuten udalekin pauso txiki batzuk eman baziren ere, norabide honetan lanean jarraitu behar da, elkarlan-motak zehaztuz. Hortaz, ikasturte honetan udalekin elkarlanean aurkezpenak egiten jarraituko da, eta bidean elkarlan-mota ezberdinak finkatu, biribildu eta sistematizatuko ditugu.

Egutegia

Urrian hasi eta ekaina bitartean, arlo bakoitzaren garapenak bere erritmoa eramango duelarik.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Elkarlanean ari diren udalen kopurua	7 udal
Gaztegune Plusekin elkarlanean aritzeko prest dauden elkarteak	10 elkarte
Aldundiak garatzeko aurkeztutako proiektuak	2 proiektu

HNGK 19. GAZTEENTZAKO ESKAINTZA AZTERTU ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGIN

Helburua:

Ikusten ari garenez, batzuetan zaila da udalek gaur egun gazteentzako duten eskaintza Gaztesaren jasotzea, edo udal horien web-orrietan argitaratzen diren 18 urtetik gorakoentzako egitasmoak gero ez dira ondo azaltzen Gaztesaretik ateratzen den argazkian.

Hori dela-eta, gazteentzako eskaintza hobetzeko asmoz, ekintza honen bidez honako hiru helburu hauek burutzea bilatuko da:

- Udalek gazteei egiten duten eskaintza jasotzea
- Udalen eskaintzaren mapa osatzea
- Gaztesare, datuak biltzeko tresna, aztertu eta egokitzea

Nola garatuko da?

Horretarako, aztertu egingo da udalek jada 18 gorako gazteei eskaitzen dizkieten zerbitzuak, ekipamenduak, diru-laguntzak, egitarauak, partaidetza-guneak eta abar. Hasteko, udalen eskaintzaren mapa osatuko da.

Bestalde, Gaztematikak duen informazioa jasotzeko tresna nagusia, Gaztesare, aztertu eta egokitzeko irizpideak eta eskaerak ezarriko dira, udalen eskaintzaren argazkia gaurkotuagoa egon dadin.

Egutegia:

- Urria - Azaroa: udalen eskaintza aztertzea
- Abendua: eskaintzaren mapa osatzea
- Urtarrila - Martxoa: Gaztesare eta udalen eskaintzaren aztertzea
- Apirila: Informazio-bilketa hobetzeko irizpideak idaztea
- Maiatza: Gaztesaren balizko aldaketak bideratzea

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Gazteentzako udal-eskaintzaren mapa egotea	Bai/ez
Gaztesarerako proposamena idatzia egotea	Bai/ez
Gaztesareren aldaketak martxan egotea	Bai/ez

HNGK 20. HAURREN ETA GAZTEEN INGURUAN INDARRA HARTZEN ARI DIREN GAIAK JORRATU

Legegintzaldi honetarako helburuetako bat da “Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea”. Gure entitateek une honetan Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen artean gorantz datozen beharrei erantzuteko gaitasuna izan dezaten ahaleginduko gara, HNGen sustapen-zerbitzuetatik horiei arreta eskainiz.

Burutzen ari garen plangintza osatu aurretik, egoeraren hainbat diagnostiko egin ditugu, zenbait erakundek martxan dituzten planei buruzko dokumentazio anitza bildu dugu, eta adituei kontsultatu diegu. Aipatutako behar horiek gure plangintzaren oinarria izan daitezen saiatu gara, nolabait, horiei erantzuteko jarduera-proposamen zehatzak eginez.

Edonola ere, gure proposamena harago doa: gure ustez, ezinbestekoa da premia horiek guztiak jasotzen jarraitzea eta gure arloan indarra hartzen ari diren gaiak antzematen jarraitzea; baina are beharrezkoagoa da gai horiei buruzko elkarrizketa, azterketa eta hausnarketarako guneak sortzea, eta bertan arduradun politikoek eta teknikoek adituekin batera parte hartzea. Hala, gai horiek gure erakundeen agendetan sartuko dira.

Helburua:

Ekintza honen helburua da arduradun politiko, tekniko eta adituentzako ikaskuntza, elkarrizketa eta hausnarketarako gune bat sortzea, garrantzia hartzen ari diren eta haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloaren aldetik erantzun bat behar duten gaiei buruz aritzeko.

Nola garatuko da?

Bi jarduera-bide proposatzen dira:

- Adituei txostenak eskatzea
- Mintegiak eta topaketak egitea

Adituei txostenak eskatzea

Gure asmoa da HNGen Sustapen Zerbitzuak iraganean jada erabilitako lan-eskemak berreskuratzea; alegia, haur eta gazteen sustapen-lanerako interesgarriak diren edo indarra hartzen ari diren gai jakinei buruzko txostenak lantzea.

Adibidez, haurren eta gazteen pobreziari buruzko txosten bat eska daiteke, gizarte jakin batean beharrezkotzat jotzen diren ondasun zehatzak (behar-beharrezkoak izan ala ez) eskuratzea eragozten duelako eta, horren ondorioz, ez gizarteratzea eta bazterkeria eragin dezakeen alderdia delako. Egoera horrek haur eta gazteei mugatu egiten die kapital sozial nahiz hezitzailez hornitzen duten esperientziak edota aukerak izan eta bizitzea, eta beraz, zaildu egiten die autonomia pertsonala eta proiektu autonomoak garatzea.

Txostenak baliagarria izan behar luke arduradun politikoak nahiz teknikoak gaiari buruz sentsibilizatzeko eta arlo teknikoan jardunbideak emateko.

Ikasturte honetarako txosten bakarra eskatzea proposatzen da.

Egutegia:

-Urria - Abendua: enkargua zehaztu eta burutuko duen aditua topatzea.

-Urtarrila: enkargua egitea.

-Otsaila - ekaina: txostena egitea.

Mintegiak edo jardunaldiak egitea

Proposamena da lansaio bat egitea, foro politikoak egiteko aurreikusitako datetan eta sarrera gisa: bertan aditu bat gai interesgarri jakin bati buruz arituko litzateke**.** Saio horretan parte hartuko lukete bai HNGen sustapeneko arduradun politikoek, eta baita teknikoek ere. Adituaren azalpenaren ondoren, eztabaida egongo litzateke.

Zenbaitetan, mintegi horiek aldez aurretik adituei eskatutako txostenetako ondorioetan oinarritu daitezke.

Ikasturtean zehar bi lansaio egitea proposatzen da, foro politikoekin batera.

Egutegia

- Azaroa - abendua: lehen lansaioa

- Apirila: bigarren lansaioa.

- Uztaila: hirugarren lansaioa.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Txostena egitea, ondoren argitaratzeko.	Ekainean egina izatea
Arduradun politiko eta teknikoen arteko lansaioak	Ikasturtean zehar 2 saio

HNGK 21. HNG-EN SUSTAPEN-ARLOKO FINANTZIAZIOA AZTERTU

Helburua:

Gaztematika sarean haur, nerabe eta gazteen sustapenerako gastua jaso eta aztertzea, HNGen sustapen-politiken garapenean laguntzeko.

Nola garatuko da?

Aurreko legegintzaldian egindako ibilbidea jarraituz, oraingo honetan ere asmoa da urtero haur, nerabe eta gazteen sustapenerako egiten den gastua Gaztematikan jaso eta aztertzea.

Horretan oinarrituta, teknkariek –toki zein lurralde mailan- politikariekin egoera aztertu dezakete eta hobetzeko erabakiak hartu, legegintzaldirako ezarritako helburuak lortzera begira.

Egutegia:

2019ko datu ekonomikoak azaroaren 15erako jasota egon beharko dira datu-basean; ondoren, Bulegoak aztertuko ditu ondo daudela ziurtatzeko. Horrela, 2020ko hasieran Gaztematika sareko aurrekontua jasotzen duen txostena egingo genuke.

Hurrengo urratsa izango litzateke politikariekin hausnarketa bideratzea: lehenik, gastuaren joera aztertuz, eta ondoren, arloa garatu eta hobetzeko, aurrekontuarekin lotutako estrategiak zehaztuz eta erabakiak hartuz.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Txosten orokorra martxoko fororako egitea	Egin da

HNGK 22. HEZITZAILEAK KONTRATATZEN DITUZTEN ENPRESEKIKO KOORDINAZIOA BERRESKURATU

Helburua:

Gaztematikak bere ibilbide osoan izan duen kezka handienetako bat da lurraldeko haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak hobetzea. Ugariak dira hezitzaile, teknikari, arduradun politiko eta eragile desberdinentzat egiten ari garen ekintzak, haien jardunbidea prestakuntzaren, koordinazioaren edo aholkularitzaren bitartez hobetzeko. Ildo horretan, eta kontuan hartuta Gipuzkoako errealitatea, hau da, zerbitzu gehienen kudeaketa erakunde edo enpresa zerbitzu-emaileei azpikontratatzen zaiela, entitate horien ordezkariak gure esku-hartze gehienetatik kanpo geratu dira, eta sare gisa ez dugu zuzenean elkarrizketarik izan beraiekin.

Duela urte batzuk ahalegina egin zen koordinazio egonkor bat sortzeko, baina ez zuen emaitzarik izan. Une honetan, koordinazio hori berreskuratu nahi genuke, gure ustez haiek ere Gaztematika sareko kide izan behar dutelako eta, bere funtzionamenduan laguntzearekin batera, hortik onurak ere atera behar lituzketelako. Erakunde horiek bitarteko kate-maila oso garrantzitsua dira zerbitzuen titular diren administrazioen eta zerbitzu horiek ematen dituzten pertsonen artean. Zuzeneko informazioa izan behar dute eta zerbitzuen, hezitzaileen profilaren nahiz prestakuntzaren definizioan parte hartu. Horrela, elkarrizketa zuzenik gabe sor daitezkeen zenbait disfuntzio ekidin ditzakegu.

Ekintza honen helburua da entitate horiekin koordinazioa berreskuratzea, haiek Gaztematikako kide izatea, eta honen dinamika batzuetan parte hartzea.

Beste kontu bat izango da, beharrezkoa edo komenigarria iruditzen bazaie, espazio hori bera baliatzea beraien artean koordinatzeko edo lankidetzan aritzeko.

Nola garatuko da?

Lehen fasean, Gaztematikaren baitan zehaztuko dugu gure ustez erakunde zerbitzu-emaileekin nolako koordinazio-eredua izatea komeni zaigun, eta proposamen batean jasoko dugu. Aldi berean, Gipuzkoako udalerrietan zerbitzuak ematen ari diren entitate desberdinen direktorioa eguneratuko dugu.

Bigarren fasean, Gipuzkoan zerbitzua ematen duen erakunde bakoitzarekin bilduko gara. Bertan azalduko dizkiegu, besteak beste, gure sareak beraiekin koordinazio egonkorra izan nahi duela, horrek duen helburua, gai garrantzitsuenak, bai eta Gaztematikak egiten dien eskaera ere. Era berean, erakundeek Gaztematikari eskatzen diotena edota beren beharrak jasoko ditugu. Azkenik, koordinazio-saioetan parte hartzeko prest dauden eta zenbatean behin egin ditzakegun aztertuko dugu.

Hirugarren fasean, elkarrizketa horietan lortutako emaitzekin lanerako proposamen bat prestatuko dugu, betiere, koordinazioa martxan jartzeko prest daudela adierazten badute; eta guztiekin batera bilera bat egingo dugu hura aztertu, adostu eta koordinazioa abian jartzeko. Koordinazio egonkorraren aldekoak ez badira, elkarrizketen emaitzekin txosten bat egingo dugu, izan daitezkeen aukerak jasoz.

Egutegia:

- Azaroan/Abenduan: Koordinazioaren komenigarritasunari buruzko proposamena egin, eta elkarrizketen eskema eta egutegia prestatu.

- Urtarrila/Otsaila: Elkarrizketak egin

- Martxoan: Koordinazio-proposamena landu.

-Apirila: guztiok elkarrekin lehen koordinazio-bilera egin.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Erakundeekin elkarrizketak egin	6 elkarrizketa
Elkarrizketetan lortutako emaitzei buruzkoa txostena prestatu koordinaziorako aukerekin.	Egina izan

H N G K 23. LURRALDE ZEIN TOKI MAILAN ABIAN DAUDEN LANKIDETZAK EGONKORTU

Toki mailan

Helburua:

Gaztematikako partaide guztiok uste dugu sustapenari ikuspegi integral batetik heldu behar zaiola, eta horrek esan nahi du gure komunitateko beste agenteekin edo administrazioko beste sailekin lan egitea ezinbestekoa dela gure helburuak lortzeko.

Alabaina, praktikan zailtasun ugari aurkitzen ditugu elkarlan hori diseinatu eta aurrera eramateko, hau da, zeharkakotasunean lan egiteko. Bilerak egiteko ohitura badugu ere, askotan hauek ez dira emankorrak izaten eta beti ez dakarte lan koordinatu bat. Hori dela eta, dagoeneko hasita dauden lankidetza batzuetan aurrerapausoak ematea asko kostatzen da.

Bulego teknikoan uste dugu egoera horri erantzuteko lagungarria izango litzatekeela koordinazioaren funtsatzea gogoratzea.

Kontzeptuaren oinarrizko elementuak guztiok ezagutzen ditugulakoan eta konpartitzen ditugulakoan gaude, baina horiek errepasatzea, harreman horiek bideratzeko lehen pausoa izan daitekeela iruditzen zaigu.

Horregatik, koordinazio eraginkor baten irizpideak jasoko dituen gida bat eratuko dugu.

Nola garatuko da?

Lan hau burutzeko, kontzeptuaren definiziotik eratorritako elementuak ez ezik, kontuan hartuko dira herrietako errealitatean egiten diren lankidetza-harreman esanguratsuak.

Lanketa honen emaitzak gogoan izan beharreko irizpideen eskema bat izan nahi du, praktikoa eta erabilgarria, teknikari bakoitzak bere errealitatean erraz inplementatu ahalko duena.

Azken atal hau bermatzeko, lehenik, haurren partaidetzarako lantaldeak txostena aztertu eta ekarpenak egitea proposatzen dugu. Izan ere, herri horietan martxan jarritako prozesuen muina da zeharka lan egitea, bai udalean zein komunitate mailan.

Egutegia:

Dokumentuaren hasierako bertsioa Aste Santuko oporren aurretik prest izatea da asmoa, haurren partaidetzarako lantaldeak ikasturtea amaitu aurretik aztertu ahal izateko. Epe horiek beteko balira, ekainean zehar lana sarean partekatuko litzateke komunitatearen bitartez.

Ekintza honen bitartez, hasieran planteatutako egoerari erantzuten diogun jakiteko, sarean irizpideak kontuan hartu eta lankidetzak hobetu diren neurtu beharko genuke. Beraz, hurrengo ikasturtean jarraipena izango duen ekintza bat da hau.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Haurren partaidetzarako lantaldeak onetsitako gida bat sortzea.	Ekainerako eginda egotea.

Lurralde mailan

Helburua:

Sarearentzat interesgarriak diren beste zerbitzu eta entitate batzuekin koordinazio egonkorrak izateko aukera ematen duten baldintza egokiak zehaztea.

Nola garatuko da?

Lurralde mailan Aldundiko Haur eta Gazteen Sustapen Zerbitzuak Gaztematikaren ordezkari gisa izan behar dituen koordinazioak aldez aurretik adostutako egutegia betez egingo dira. Honako hauek dira:

- Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoarekin.
- Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko Zerbitzuarekin
- Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetza Zerbitzuarekin
- Eusko Jaurlaritzako Gazteen Euskal Behatokiarekin.
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin (EHU)

Koordinazio egonkorra sortzeko oinarrizko elementu bat da zerbitzu bakoitzaren misioa, helburuak eta burutzen dituen jarduerak jakitea. Ezagutza hori da bi alderdientzako jarduera interesgarriak elkarrekin egiteko oinarria.

2019-2020 ikasturtean izan ditugun koordinazioen ondorioz, egitasmo batzuk garatuko ditugu honako zerbitzu edo entitate hauekin:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoa. Elkarrekin garatzeko ekintzak:**

  Bi dira bi zerbitzuok elkarrekin garatuko ditugun ekintzak. Udal-teknikariek parte hartuko dute, ikasturte osoan zehar landuko dira eta toki espezifikoa dute plan honen barruan:

  - Haurrek pairatzen dituzten sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik landu.
  - Haurtxokoetan genero-estereotipoen lanketa bideratu. (Ekintza hau 2019-2020 ikasturtean garatzeko asmoa genuen arren, aldi honetan zehaztu egingo da, datorren ikasturtean martxan jartzeko).

- **Herritarren Partaidetzako Zerbitzua. Elkarrekin garatzeko ekintzak:**

  Aurreikusita dago elkarrekin bi ekintza garatzea.

  - Lehena, bi lan-arloetako teknikarientzako prestakuntza-ekintza batean datza, eta bertan "arlo komunitarioa" landuko da.
  - Bigarren ekintza izango da Gaztegune+ proiektuaren barruan laborategi bat garatzea, gazte-talde batek bertan gazteei eta parte-hartzeari buruz lan egiteko.

- **Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (EHU). Elkarrekin garatzeko ekintzak:**

  Hemen ere aurreikusita dago elkarrekin bi ekintza garatzea.

  - HNGen sustapen-arloko profesionalentzako master edo graduondoko ikastaro baten diseinua prestatu.
  - Lankidetza mantentzea ikasleei Gaztematikari buruzko aurkezpenak eginez eta, GRALaren bitartez, Gaztematikarentzako gai interesgarriak garatuz.

Bai aipatutako zerbitzu eta entitate horiekin, eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasunerako Organoarekin eta Eusko Jaurlaritzako Gazteen Euskal Behatokiarekin, aldizka bilerak egingo dira elkar ezagutzen jarraitzeko, elkarrekin ditugun proiektuen segimendua egiteko, eta lankidetzak zabaltzeko aukerak aztertzeko.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Lankidetzan garatzeko proiektuak	5
2020-2021 ikasturterako proiektu berriak proposatzea	2

H N G K **24.** **GURE ZERBITZUEI BURUZKO MATERIALAK SORTU, HERRIKO ERAGILEENTZAT EGOKITUTA**

Helburua:

Ekintza honen helburua da, komunitatearen arloa lantzeari begira, herrietako eragile desberdinekin elkar hobeto ezagutzeko eta ahal den neurrian lankidetza bultzatzeko material espezifiko batzuk prestatzea.

Ikusten denez, ekintza honek, berez, beste era bateko jarduketa edo esku-hartze baten osagarri izan behar luke. Honen atzean dago herriko eragileek gure zerbitzu publikoak eta beren izaera ezagutzea eta horiekin nolabaiteko kolaborazioak egiten ahalegintzea. Ekintza hau horretarako materialak prestatzera mugatuko da. Horiek, nagusiki, komunitate-arlo hori oraindik lantzen ez duten edo zailtasunak izan ditzaketen udalentzat izango dira; izan ere, udal batzuek jada lantzen dute.

Herriko eragileak aipatzen ditugunean, oraingoan, ez gara ari beste zerbitzu edo sail batzuez, herriko kultura, kirol, natura, euskara, arte eta beste alor batzuetako elkarte, GKE nahiz profesional eta partikularrez baizik. Azken batean, asmoa da eragile horiek gure zerbitzuak, bertan egiten den lana, oinarrian dituzten printzipioak… ezagutzea, eta guztionak direla ulertzea, lankidetza puntualak edo iraunkorragoak sortzeko.


Nola garatuko da?

Orain arte prestatutako beste material batzuk oinarri hartuta, helburu honetarako espezifiko batzuk sortuko dira.

Egutegia:

Materiala urritik otsailera bitartean prestatuko da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Materiala prestatzea	Otsailean egina izatea



H N G K 25. HNG-ENGANA IRISTEKO TRESNA DIGITALAK SORTU ETA INDARTU.

Deialdia

Helburua:

Gure hartzaile zuzenengana iristeko (haurrak, nerabeak eta gazteak) estrategia bat diseinatu eta behar diren euskarri digitalak sortu, indartu eta udalei horiek sortzeko laguntza eskaintzea.

Nola garatuko da?

Aldundi mailan

Lurralde mailan, eskura ditugun baliabideak (une honetan sare sozialak nagusiki) kontuan hartuz, haur, nerabe eta gazteengana iristeko eta hauen parte-hartzea sustatzeko formulak aztertu ondoren, egokienak aukeratu eta martxan jartzeko estrategia diseinatuko da.

Aldundiko beste departamentuekin koordinazioa ezinbestekoa izango da, martxan jartzen dugun estrategia eraginkorra izan dadin eta, denon indarrak batuz, hartzaileengana iristeko bide berriak baliagarriak izan daitezen.

Toki mailan

Udalei laguntza eskainiko zaie, lurralde mailako esperientzia eta azterketa partekatuz eta bakoitzaren errealitatera egokituz.

Komunikazioko formula eta estrategia berriak herrian inplementatzeko interesa duten udalekin lana egingo dugu digitalki, eta aurrez aurreko aholkularitza pertsonalizatuak ere eskainiko dizkiegu. Interesa duten udalek izena eman beharko dute, eta horiekin hasiko gara lanean, ikasturtean zehar bakoitzaren egoera, baliabide eta egutegira egokituz.

Behar izanez gero, tresna edo gai komunak badaude, bilerak egingo dira gai zehatzak denon artean lantzeko.

Egutegia

Aldundi mailan

Azarorako: Komunikazio-kanalen azterketa, koordinazio-bilerak beste departamentuekin.

Urtarrila - Otsaila: Estrategiaren diseinua eta egutegia.

Martxotik aurrera: Komunikazio-tresnak sortu eta estrategia inplementatu.

Toki mailan

Urrian: Udalei proposamena aurkeztu eta izen-ematea bidali; azaroa baino lehen taldea itxi.

Azaroa/Abendua: Interesa duten udalekin banan bana bildu, diagnostikoa egin eta 2020ko egutegia itxi. Plangintza honetan bakoitzaren egoera kontuan hartuz, ekintza batzuk aurrera eramateko dokumentu bat diseinatu.

Urtarriletik maiatzera: Udal bakoitzarekin zehaztutako egutegia jarraituz, aurrez aurre, telefonoz eta komunitatearen bitartez aholkularitza eman, guztia martxan jartzeko bide-orria landu eta segimendua egin.

Ekaina: Ebaluazioa (udal bakoitzarekin zehaztutako ekintzak aurrera eraman diren edo ez aztertu eta baloratu.)

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Lurralde mailan komunikazio-kanalei buruzko lehen hurbilpena egitea	Irailerako egina izatea
Lurralde mailan komunikazio-kanal bat martxan jartzea	Apirilerako egina izatea
Toki-mailan interesa duten udalen izen-ematea	5 udal

HNGK 26. HNG-EN SUSTAPEN-ARLOKO ESKU-HARTZE BIRTUALAREN GAIA LANDU ETA ARLO HONETAN DAUDEN PRAKTIKA ONAK IKUSI

Lan-taldea

Helburua:

Nerabe eta gazteek beren aisiaren denbora-tarte handia ingurune birtualetan ematen dute, batez ere sare sozialen bitartez kideekin harremanetan. HNGen sustapen-zerbitzuetan egiten den esku-hartzea aurrez aurrekoa da, eta oso modu puntualean erabiltzen da ingurune birtuala nerabe eta gazteekin harremanetan egoteko. Hau da, nahiz eta nerabeak eta gazteak Sarean geroz eta gehiago aritu, momentuz gure esku-hartzea aurrez aurrekoa da soilik. Baina gaztelekura datorrena eta Interneten dabilena nerabe bera da eta, horregatik, sustapena egiteko aukera eta modu berriak aztertu eta zabaldu behar ditugu.

Ekintza honen bitartez gure presentzia, gure eskaintza eta gure esku-hartzea ingurune birtualera eramateko aukera aztertuko dugu.

Nola garatuko da?

Interesa duten Gipuzkoako sustapen-teknikariekin eta hezitzaileekin talde bat sortuko da gaia jorratzeko. Bilerak egingo dira gaia lantzeko, eta interesgarria den dokumentazioa aztertuko da. Bestalde, hezitzaileen foroetan ekintzaren berri emango da, hezitzaileek beraien ikuspuntua emateko.

Ikasturtean zehar lantaldean honako ekintzak egingo dira:

- HNGen sustapen birtualaren inguruan dagoen dokumentazioaren azterketa
- HNGen sustapen birtualaren definizioa adostu
- Egon daitezkeen praktika egokiei buruzko hausnarketa
- Zerbitzuetan egin daitekeena aztertu
- Praktikara eraman daitezkeen ekintzen proposamenak egin
- Beharrezkoa den prestakuntza bilatu

Interesgarria izan daitekeen informazioa:
https://www.digitalyouthwork.eu/

Egutegia:

Ikasturtean zehar 4 bilera egitea proposatzen da, urrian hasi eta apirila bitartean. Dokumentazioa partekatzeko, Gaztematika komunitatea erabiliko da, eta on-line lan egiteko aukera ere aztertuko da.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Toki-mailan interesa duten udalen izen-ematea	5 udal
Etorkizunean garatzeko diseinatuko diren HNGen sustapen birtualeko ekintzen kopurua	3 ekintza pilotu

HNGK 27. TEKNIKARIENTZAKO ETA HEZITZAILEENTZAKO 2019-2020 PRESTAKUNTZA-PLANA

Helburua:

Gipuzkoako haur eta gazteen sustapeneko teknikariei eta hezitzaileei urteko plana garatzeko lagungarria izango zaien prestakuntza eskaintzea da ikasturte honeratako dugun helburua. Horrekin batera, hausnarketa kolektiborako sor daitezken guneak eta momentuak aprobetxatuz, sarea osatzen dugunon arteko jakintzaren transmisioa bultzatu nahi da.

Teknikarientzako 2019-2020ko prestakuntza plana

Nola garatuko da?

2019-20ko plana errepasatu ondoren teknikarientzako prestakuntzarekin eta talde-hausnarketarekin lotuta hainbat ekintza daudela ikus daiteke:

- Haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeriari buruzko marko teoriko eta kontzeptual bat ikuspuntu feminista batetik lantzeko 4 saio egitea, irail eta abendu bitartean.

  Horretaz gain, otsail-martxo aldera topaketa ireki batekin ibilbidea ixtea da asmoa.

- Gaztematika komunitatea intranetaren erabilera sustatzeko prestakuntza aurreratua

- Haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko estrategia eta bideei buruzko hausnarketa kolektiboa (teknikari eta hezitzaileak batera) egitea, Prometearen laguntzarekin.


- Gazte-lokaletan biltzen diren gazteekin esku hartzeko Bulegoak egingo duen proposamena aztertzea (saio hau hezitzaileentzat ere izango litzateke).

Horietaz gain, iaz udalekuei buruz egin zen saioari jarraipena emanez, iruditu zaigu interesgarria izan daitekeela hausnarketa-saio bat antolatzea, udalekuetan lan egiteko pertsonak kontratatzean ezarri behar diren baldintza eta irizpideen gaia jorratzeko.

Horrekin batera, beste urteetan bezala, eta teknikarien eskaera betez, irteera bat antolatzeko asmoa dugu inguruko esperientzia interesgarriak ezagutzeko. Teknikariek maiatzean egindako irteeraren ebaluazioan ez zuten gai edo leku zehatzik proposatu; gure ustez, ondo legoke garapen komunitarioaren inguruan antolatzea irteera, baina oraindik garaiz gaude proposamen berriak jasotzeko.

Aurten ere saiatuko gara Behatokiko prestakuntza-eskaintza kontuan izaten gure prestakuntza-egutegia zehaztean biak bateragarriak izan daitezen.

Egutegia:



ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Saioetan egon den partaidetza	guztietan % 80 bete da
Prestakuntza-saioen balorazio orokorra	8
Hausnarketa-saioen balorazio orokorra	8
Irteeran egon den parte-hartzea	Iaz baino udal-teknikari gehiago (16)

Hezitzaileentzako 2019-2020 prestakuntza-plana

Nola garatuko da?

2017-2020 Hezitzaileentzako prestakuntza-plana hartuko dugu oinarri gisa aurtengo hezitzaileentzako prestakuntza-eskaintza diseinatzeko. Horrez gain, ahalegina egingo da 2019-2023ko plangintza berrian zehaztu diren ildo estrategikoen garapenari erantzuteko.

Legegintzaldiaren hasiera honetan, funtsezkoa deritzogu hezitzaile berrien prestakuntza-beharrei erantzuteari, betiere ibilbide luzeagoa duten hezitzaileak ahaztu gabe.

Horrekin batera, zeharkako arretaren inguruko trebakuntzari heldu nahi diogu.

Prestakuntza-eskaintza:

Ikasturte honetarako aurreikusten diren ikastaroak hauek dira:

1. **Zerbitzuak Gaztematikan**

   Gaztematikaren eta zerbitzuen oinarriak eta elementu nagusiak lantzeko bi saioko ikastaroa, bereziki hezitzaile berrientzat. *Urria*

2. **Zeharkako arreta-zerbitzuetan: talde-lana eta koordinazioa**

   Lankideekin helburu komunak lortu eta beste profesionalekin koordinatzeko lanketa egingo da; bi saioko ikastaroa. *Azaroa – Abendua*

3. ***Gaztematika Komunitatea* erabiltzen ikasteko ikastaroa**

   Komunikazio Bulegoak Gaztematika Komunitateari buruzko trebakuntza eskainiko du; saio bakarra. *Urtarrila*

4. **Haurren eta nerabeen parte-hartzean sakontzeko ikastaroa**

   Hezitzaileekin eta teknikariekin haurren eta nerabeen parte-hartzearen inguruan sakontzeko bi/hiru saioko eskaintza. *Otsaila – Martxoa*

5. **Datu pertsonalak zaintzen haurtxoko eta gaztelekuetan**

   Datu-babesari buruzko prestakuntza haurtxoko eta gaztelekuetan lan egiten duten hezitzaileentzat; nola babestu haurren eta nerabeen datuak eta irudia?; saio bakarreko ikastaroa. *Apirila*

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Planifikatutako ikastaroak egitea	% 80
Prestakuntza-saio bakoitzaren ebaluaziorako zehaztu diren estandarrak betetzea	% 80
Koordinazio-bilerak teknikarien eta hezitzaileen prestakuntza-planen segimendua egiteko	4

H N G K 28. GAZTEMATIKAN SARTZEN DIREN LANGILE BERRIENTZAKO HARRERA-PROTOKOLOA DISEINATU

Helburua:

Gaztematikaren ibilbidean zehar ikusi denez, askotan, langileak aldatu edo gehitu egiten dira sarean. Horregatik, garrantzitsua da profesional berriak sartzen direnerako harrera-protokolo bat diseinatzea. Izan ere, langile batzuk Gaztematikako kide parte-hartzaile sentitzeko zailtazunak adierazi dituzte, bateratutako eginkizunak burutzea zailtzen duen egoera sorraraziz. Gainera, sareak aurrerapausoak eman ahal izateko ezinbestekoa da modu bateratuan lan egitea.

Gaztematikak, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustaepenerako Sareak, arloa egituratu eta garatzeko prozesua zehaztuta duenez, ekintza honen helburua da langile berriei marko honen barruan kokatzen laguntzea.

Nola garatuko da?


Protokoloak, langile bakoitzaren zeregin desberdinak kontuan hartuz, profesionalek irakurri beharreko materiala zehaztuko du. Horretarako, Gaztematikak osatutako dokumentu teorikoak errepasatuko dira, baita azken urteotan osatu diren txostenak ere. Garrantzitsuenak aukeratu eta hurrenkera baten bidez antolatuko dira. Horrekin batera, prozesu honetan emango diren pausoak zeintzuk diren eta hauek ondo garatzen direla egiaztatzeko ardura norena den argituko da.

Protokoloaren baliagarritasuna aztertzeko, ohiko aholkularitzaren bidez izaten diren frogatzeko aukeraz baliatuko gara. Teoria praktikara eramanez, protokoloaren hobetzekoak identifikatu eta beharrezkoak diren moldaketak egingo dira. Hortaz, ikasturte bukaeran eguneroko praktikan oinarritzen den protokoloa osatuta egongo da. Azkenik, komunitatean partekatuko da, sareko kide guztiek eskura izan dezaten.

Egutegia:

- Iraila - Azaroa:
    1. Dokumentuak eta txostenak aztertu
    2. Materialak hautatu (dokumentuak eta txostenak)
    3. Protokoloa garatzeko faseak eta ardurak zehaztu
- Azaroa - Ekaina:
    1. Protokoloaren egokitasuna bermatzeko lanketa martxan jarri
    2. Protokoloa egokitu
    3. Protokoloa komunitatean partekatu

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Harrera-protokoloa diseinatu	Egitea



H N G K 29. EHU-REKIN BATERA, MASTER EDO GRADUONDO BAT DISEINATU, HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPEN-ARLOKO PROFESIONALENTZAT

Helburua:

Haurren eta gazteen sustapenerako politiketan lanean dihardugun profesional gehienek ez dugu jaso arlo honi buruzko prestakuntza akademiko espezifikorik. Gure ustez, oso egokia litzateke haur eta gazteen sustapenerako politikei buruzko unibertsitate-prestakuntza espezifiko bat, gure errealitateari ahalik eta gehien lotuta egongo dena, izatea. Era berean, ondo legoke esparru honetako profesionalak kontratatzeko asmoa duten erakundeen erreferentziazko titulazioa hori izatea, bereziki administrazio publikoen kasuan.

Ekintza honen helburua da, EHUrekin koordinatuta, haurren eta gazteen sustapenerako politikei buruzko graduondoko ikastaro bat diseinatzea.

Nola garatuko da?

Ildo honetan, jada eman ditugu urrats batzuk ikasturte honetan jarraipena izango dutenak, eta etorkizunerako esperientzia gisa baliagarriak izango direnak.

Izan ere, Gaztematika jada laguntzen ari da EHUren graduondoko ikastaro batean: “Komunitatearen, hiriaren eta politikaren eraldaketa haurren autonomiaren eta parte-hartzearen bitartez”. Bertan parte hartuko dugu Gaztematikaren esperientzia aurkezten, finantziazioan lagunduz eta gure sarearentzat bereziki interesgarriak diren prestakuntza osagarriko bi ikastaroren antolaketan parte hartzen:

- Gazteen ahalduntzea eta gizartean parte hartzea. Pere Solerrek emango duena.
- Haurren eta gazteen parte-hartzea. Jaume Trillak emango duena.

Aldi berean, haurren eta gazteen sustapenerako politikei buruzko graduondoaren diseinuan lan egingo dugu. Horretarako, lan-batzorde bat sortuko dugu eta bertan parte hartuko dute EHUko eta Gaztematikako profesionalek.

Graduondoa diseinatzerakoan landu eta zehaztu beharreko edukiak honakoak izango dira: ikastaroak ase behar dituen beharrak, helburuak, hartzaileak, gaiak, irakasleak, ikastaro-mota, finantziazioa, izapideak, onarpena, laneko kronograma eta erantzukizunen banaketa. 2020ko maiatzerako izan behar genuke ikastaroaren diseinu-proposamen bat, aztertu eta konpromiso berriak gure gain hartu ahal izateko.

Egutegia:

- Urria: EHUrekin batera lan-batzorde bat sortu, eta lanerako dinamika eta egutegia zehaztu.

- Azaroa: Lan-batzordea martxan jarri.

- Abendua: Prestakuntza osagarriko ikastaroa gazteen ahalduntzeari eta gizartean parte hartzeari buruz.

- Martxoa: Prestakuntza osagarriko ikastaroa haurren eta gazteen parte-hartzeari buruz.

- Maiatza: Ikastaroaren diseinua amaitu eta dokumentua entregatu.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Ikastaroaren diseinu-proposamena jasoko duen dokumentua	Egina izatea

H N G K 30. GAZTESARE LANERAKO BALIAGARRIA IZATEKO EGUNERATU ETA MOLDATU

Helburua:

Gaztesare datu-basea HNGen Sustapen Sarearen ebaluaziorako tresna izatea da honen helburua. Horretarako, datu-basea aztertuko dugu eta, IZFErekin batera, moldatzen saiatuko gara, jasotzen den informazioa esanguratsua eta erabilgarria izan dadin. Azken finean lortu nahi duguna da, Gaztesarek eskaintzen dizkigun aukerak ezagutuz, gure egunerokotasunerako erabilgarria eta baliagarria izan daitekeen lan-erreminta bilakatzea.

Nola garatuko da:

Helburu hori lortzeko, Bulego Teknikoan tresnaren hutsak antzeman eta konpontzeko lanetan arituko gara. Ondoren, udal-teknikari eta suspertzaileekin, Bulego Teknikoak egiten duen aholkularitzaren baitan, datu-basearen erabilgarritasunari buruzko hausnarketa bideratu eta berrikuntzak partekatuko dira.

Ildo horretan, 2019an urteko laburpena jasoz, Gaztesarek automatikoki txostena ateratzeko eman duen aukera teknikariekin baloratuko dugu eta hobetzeko proposamenak jasoko ditugu.


Hori egin ondoren, hurrengo urratsa da IZFErekin batera datu-basea moldatzea tresna egokiagoa izateko. Zentzu horretan, lan asko dago egiteko bilaketen aukera fintzen eta gure beharretara egokitzen.

Horrekin batera, tresnari etekin gehiago ateratzeko, aztertu eta erabaki beharko litzateke zerbitzuen erabiltzaile-kopurua zein den eta iritzia jasotzeko Gaztesarez baliatzeko aukera badagoen.

Ekintzaren helburua Gaztesare lanerako tresna bihurtzea denez, hori lortu dugun jakiteko, ikasturtearen bukaeran galdetegi bat pasako zaie teknikariei.

Egutegia:

Ekintza ikasturte osoan zehar garatuko da, baina mugarri batzuk zehaztea komeni da elkarlana bideratzeko:



ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Teknikarien balorazioa	7
Gaztematika ebaluatzeko adierazle sorta elikatzeko balio izatea	Bai

HNGK 31. GAZTEMATIKA EBALUATZEKO ADIERAZLE-SORTA ZEHAZTU

Helburua:

Ekintza hau jakintzaren kudeaketan eta ebidentzian oinarritutako jardunbidea da; eta bere helburua esku-hartzeak ebaluatzen laguntzea da, haur, nerabe eta gazteen sustapenarekin eta ongizatearekin erlazionatutako beharrak detektatuz politika publikoak bideratu ahal izateko.

Nola garatuko da?

Lehendabiziko urratsa izango da gorago aipatutako helburua lortzeko behar den informazioa zehaztea. Horretarako, oinarrizko hiru irizpide izango ditugu:

- lehenengoa, iturriak fidagarriak eta eskuragarriak izatea;
- bigarrena, lortutako informazioaren egokitasuna: hau da, Gaztematikaren garapena neurtzeko baliagarria izatea;
- hirugarrena, errentagarritasuna: informazioa lortzeko egin behar den esfortzua eta ateratzen zaion etekina orekatuta egotea.

Irizpide horiek kontuan izanik, beste sistemak ebaluatzeko sortu diren adierazleak aztertuko dira. Azterketa horretan oinarrituta, Gipuzkoako haur eta gazteen sustapen-sarea ebaluatzeko erabiliko dugun adierazle-sorta proposatuko dugu.

Hurrengo fasea onespenarena izango da: lehenik, adituen filtroa pasako genuke, eta, ondoren, Gaztematikako eragileekin partekatuko genuke (teknikari eta hezitzaileekin).

Horrela, ikasturte bukaerarako, adierazle-sorta zehaztuta eta adostuta edukiko genuke hurrengo ikasturtetik aurrera probatu ahal izateko.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Adierazle-sorta jasotzen duen tresna	Egina


HNGK 32. HNG-EN SUSTAPEN-ZERBITZUAK HOBETZEKO ABIAN DAUDEN PROZESUETAN LAGUNDU ETA BERRIAK SUSTATU

Helburua:

Zerbitzuak dira Gaztematikaren xedea lortzeko tresna nagusiak, eta iragate-prozesua, berriz, zerbitzuak hobetzeko diseinatuta dagoen ibilbidea. Zerbitzuetan garatu beharreko trantsizio horiek, beraz, ezinbestekoak dira haur, nerabe eta gazteekin esku-hartze benetan eraginkorra garatu ahal izateko. Horregatik, lan-prozesu horiek sustatu behar dira herrietan, eta, pixkanaka, herri gehiagotan bidea egiten hasi, zerbitzuetan garatzen den lana gero eta egokituago egoteko haur eta nerabeen behar eta eskaeretara.

Nola garatuko da?

Gaur egungo zerbitzuetatik definizio-dokumentuetan deskribatutako zerbitzuetara iristeko aldaketa sakonak egin behar dira. Prozesu hori sistematizatu da, eta ibilbidea egiteko tresnak diseinatu dira. Iragate-prozesuak 4 urte irauten du, eta eskema honetan laburbildu dugu:



Lehen bi urteetan, plangintzaren diseinua garatzen da, eta hurrengo bietan, plangintzaren inplementazioa egiten da. Eskeman azaltzen den moduan, prozesua momentuko egoeraren hausnarketa eginez hasten da. Hausnarketa horretan, zerbitzu baten alderdi guztiak hartzen dira kontuan, eta zerbitzu baten elementu guztiei buruz hausnartzen da. Hori bideratzeko, elementu horiek guztiak 7 eremutan sailkatzen dira eta eremuka egiten da hausnarketa.

Prozesuaren lidergoa udal-teknikariak darama; izan ere, bera da zerbitzuko taldeari iragate-prozesua egitea proposatzen diona. Hasiera batean, bulego teknikoko aholkularia arduratzen da prozesua bideratzeaz, eta taldea lan-dinamika horretan sartzeaz; baina, poliki-poliki, aholkulariaren irudiaren protagonismoa jaisten doa, prozesua bukatzen denerako, taldeak autonomoki lan egiteko gaitasuna beregana dezan.

ADIERAZLEA	ESTANDARRA
Iragate-prozesua abian jartzeko erabaki-kopurua	5
Ikasturtean hasi diren iragate-prozesuen kopurua	2
Abian dauden iragate-prozesuen kopurua mantendu	% 100


GAZTEMATIKA